

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ormaiztegi

Aurkibidea

Udalerria: Ormaiztegi

Sarrera



Goierri eskualdeko udalerria da. Iparraldean, Ezkio-Itsaso du mugatzat; hegoaldean, Mutiloa eta Idiazabal herriak; ekialdean, Beasain; eta, mendebaldean, Gabiria eta Mutiloa. Guda karlistak XIX. mendean izan ziren, 1834ko amaieran "Ormaiztegiko" deituriko ekintza gertatu zelarik. Hiri honetakoa da, Tomas Zumalakarregi (1788-1835), gertaera hauetako aparteko protagonista. Trenzubi ospetsua ere mende honetan eraiki zen. XX. mendeko hasierara arte, bizi izan zuen egitura ekonomikoa nekazaritza eta abeltzaintzan oinarritzen zen. XIX. mendearen erdi aldera, garraiobideak jasandako aldaketek (errepideak eta trenbidea), nekazaritzan oinarritzen ez ziren beste jarduera berrien sorrera ekarri zuen, batez ere bainuetxeak, baina baita ere, inguruetako meategiak eraginda, pixkanaka industriarako joera hasiz.

- **Biztanleak:** 1.320
- **Euskaldunak:** %74,4

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **12**
- Zintak: **16**
- Pasarteak: **186**
- Transkribatutakoak: **30**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **165**

Proiektuak

- Donostiako ahotsak
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista

- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Kaxilda

Elixabete Garmendia Lasa (1953)



Ormaiztegiko erdigunean jaioa, udaletxe ondoan. 7 senidetan erdikoa (6 neska eta mutil bakarra). Guraso biek etxeko enpresan egiten zuten lana. Familia abertzalekoa, euskarazko liburu zein diskoak izaten zituzten etxean. Eskola publikoan ibili zen Elixabete. Oso umetatik garbi zeukan kazetari izan nahi zuela. Kazetaritza ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean, Iruñean, eta ondoren Zeruko Argia astekarian hasi zen lanean. 1981etik 1986ra Gipuzkoako aldundian egin zuen lana, teknikari moduan, eta 1986tik erretiroa hartu arte telebistan ibili da, ETB-1 katean (besteak beste, "Bertatik bertara" saioan). Emakume aitzindaria kazetaritzan, 2019an kazetari-ibilbide profesionalaren saria eman zioten. Mari Karmen Garmendia ahizpa ere bide urratzailea izan da.

Mari Karmen Garmendia Lasa (1947)



Ormaiztegin jaioa, aita lazkaotarra zuen eta ama, berriz, Ormaiztegi bertakoa. Zazpi senidetan zaharrena zen Mari Karmen. Guraso biek etxeko enpresan egiten zuten lana. Familia abertzalekoa, euskarazko liburu zein diskoak izaten zituzten etxean. Eskola publikoan ibili zen, gerraosteko urte ilunetan (gaztelaniaz eta hezkuntza oso frankista). 13 urterekin Frantziara bidali zuten, frantsesa ikastera, eta aldaketa handia izan zen berarentzat: gizarte moderno bat ezagutzeko aukera izan zuen. Donostian bizi da 1964. urteaz geroztik. Batxilergoa egin ostean, Magisteritza ikasi zuen, Andereñoen Erresidentzian ostatu hartuta (irakasleak euskalduntzeko hezkuntza osagarria jasotzen zuten bertan), eta euskarazko eskolak ematen hasi zen segituan. Euskarazko lehenengo udalekuak ere antolatu zituzten. Horretaz gainera, Zeruko Argia astekarian iritzi-zutabeak idatzi zituen lehen emakumea izan zen. Rikardo Arregik bultzatuta, "Gazte naiz" sailean idazten hasi zen, eta euskalduntze-alfabetatze eskoletan ere buru-belarri aritu zen. Santo Tomas lizeoan irakasle jardun zuen eta baita Elizbarrutiko Irakasle Eskolan ere. Politikaria ere bada, EAjtik: Eusko Jaurlaritzako bozeramaile izan zen (Ardanza lehendakari zela) eta Hizkuntza Politikara sailburuorde, eta baita Kultura Sailaren buru ere (1995etik 2001. urtera). Bide urratzailea izan da hainbat alorretan; baita bere ahizpa [Elixabete Garmendia](#) ere. Bi seme-alaba ditu. San Telmo museoan egindako elkarriketa.

Kontxa Intxausti Peña (1919-2015)



Ormaiztegin jaio zen 1919an. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Aizarnazabalgoa. Sei anai-arreba ziren. Aita baserritar ilustratua eta errepublikazalea zen. Kontxa eskolan lehenbizi Ormaiztegin, gero Beasainen (mojetan) eta, azkenik, Donostian ibili zen batxilerra egiten. Gerora josten ikasten ere ibili zen eta bederatzi urte egin zituen lanean Donostiako "Almacenes Beñaranen" eskularru eta galtzerdiak egiten. Gerra garaian herritik ihes egin zuten, lehenbizi Bilbora eta geroago Santanderrera. Handik itsasontzian Frantziara eraman zituzten hiru ahizpa eta osaba zaharra; urtebete inguru egin zuten Arnay-le-Duc herrian. Herrirako itzulera gogorra izan zen, baserria hustuta aurkitu zutelako eta, gainera, guraso eta anai-arrebek hainbat kartzelaldi bizi behar izan zituzten. Miguel Mari Irizarrekin ezkondu zen, "karroiletakoa" (karroegilea), eta hura familia-tailerra enpresa bihurtzen ari zen, gerora Irizar autobus fabrika ospetsua izango zena. Zazpi seme-alaba izan zituzten. 1970ean Madrilera joan ziren bizitzera familia osoa eta 1985 inguruan, handik itzuli zirenean, senarrarengandik banandu zen.

Mikel Irizar Intxausti (1954)



Ormaiztegin jaio eta Esteñibarren, Elorrión, bizi da. Bidean pasa ditu ikasle sasoiak Donostia, Donibane Lohitzune, Tolosa, Iruñea eta Madril. Eta behargin aritu da Beasain, Lazkao, Segura, Bergara eta Arrasaten. Lan egin du klinikan eta aroztegian, izan da komunikazio enpresan buru eta banketxean isats. Egun ogibidez bankari, ofizioz mahastizain, afizioz komunikatzaile. Bere bloga: blogak.goiena.eus/piperrautsa

Joxe Iurreta Urdiztondo (1935)



Joxe Ormaiztegiko Solozabal baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama, berriz, ataundarra. Ormaiztegiko eskola nazionaletan ikasi zuen, eskola bukatuta hainbat tokitan ibili zen lanean, basoan eta meatzean, besteak beste. Maiorazgoa izanik, ezkondu eta baserrian geratu zen bizi izaten. Garai bateko Ormaiztegiko bizimoduaz hitz egin zigun [Joxe Urreta](#) rekin batera egin genion elkarrizketan. Joxe, argazkian eskubitan agertzen dena da.

Kaxilda Iurreta Urdiztondo (1933)



Kaxilda Ormaiztegiko Solozabal baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama, berriz, ataundarra. Umetan Ormaiztegiko eta Alegiko eskoletan ikasi zuen eta hau bukatzean irakasle partikular batekin ere ibili zen, bertan ikasi omen zituen jakin beharrekoak. Gaztetan, bizikleta hartuta josten ikastera joaten zen Beasainera, sukaldean aritzeko ikastaroa ere egin zuen Beasaingo "Acción Católica"ko lokalean. 24 urterekin Itsasoko Pedro Izarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen. Ume eta gazte garaiko istori ugari kontatu zizkigun [Maria Angeles Pildain](#)ekin batera egin genion elkarrizketan. Kaxilda, argazkian eskubitan agertzen dena da.

Juan Mari Leturia Lasa (1931)



Juan Mari Ormazitegiko Lizarralde baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama, berriz Matximentakoa. Bost senidetan zaharrena, Ormaiztegiko eskolan 12 urte zituen arte ikasi eta Zumarragako hermanotara joan zen ikasketak osatzera. Goizeko zazpian Legazpi eta Zumarragako lantegietako langileekin batera hartzen zuen trena, eguna bertan pasa eta arratsaldeko trenean bueltatzen zen etxera. Hermanotako ikasketak 15 urterekin bukatu eta baserrira bueltatu zen lanera. 28 urte zituela, ezkondu zen eta maiorazgoa zenez, emaztea eta biak bertan ziren bizi ziren bere gurasoekin batera eta lau seme-alaba izan zituzten. Ezkondu eta segituan, baserriko terrenoetan eraiki zen Imegisa lantegian hasi zen lanean eta bertan egon zen erretiratu zen arte. Ormazitegiko istorio ugari kontatu zizkigun [Bonifazio Maiora](#)ekin batera egin genion elkarrizketan, Juan Mari argazkian ezkerretan agertzen dena da.

Bonifazio Maiora Goia (1925)




Ormazitegiko Udabarrogoiko baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa, ama, berriz, Mutiloakoa. Bi senidetan zaharrena, Ormaiztegiko eskolan ikasi ondoren Zumarragako hermanotan egin zuen urtebete. Urretxun izeba-osabak zituen eta haien etxean egon zen bizi izaten ikasten ibili zen bitartean. 13 urterekin etxera bueltatu eta baserrian lanean jardun zuen erretiratu zen arte, bertan ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituen. Historiazalea izanik, Ormaiztegiko gerra garaiko pasarteak xehetasunez kontatu zizkigun, bere ume eta gazte garaiko hainbat kontu ere aipatu zizkigun [Juan Mari Leturia](#)ekin batera egin genion elkarrizketan. Bonifazio argazkian eskubitan dagoena da.

Maria Angeles Pildain Mendizabal (1938)



Maria Angeles Ormaiztegiko Zumalakarregi etxean jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama Ormaiztegiko Zamora etxekoa. Hiru urte zituela, Diputazioak Zumalakarregi etxea museo egiteko hartu zuen eta udaletxe gainean bizi izan zen 21 urterekin, herriko beste etxe batera ezkondu zen arte. Eskolan goiz hasi zen, lau bat urte zituela, gogoan du nola joaten zen andereñoari eskutik helduta. Kontabilitate ikasketak ere egin zituen eta Alegiko lantegi batean ibili zen lanean ezkondu zen arte. Bere ume eta gazte garaiko hainbat istori aipatu zizkigun [Kaxilda Iurreta](#)rekin batera egin genion elkarrizketan. Maria Angeles, argazkian ezkerretan agertzen dena da.

Katalina Urbil Goiaz (1914-2015)



Zizurkilen jaio zen, Eskoriatzan bizi izan zen umetan, eta gero Ormaiztegin. Euskara bertakoa duela uste du berak. Tabernari ibili izan da lanean; Trintxerpen sei urte egin zituen, eta Behobian ere egon zen, Irunen. Extremadurako batekin ezkondu zen. Otoitz zalea da, oso elizkoia.

Jose Urreta Izuzkitza (1925)



Zegamako mikelete etxean jaio zen 1925ean. Urte eta erdirekin eraman zuten gurasoek Ormaiztegiara eta Telleriaren etxean jarri ziren bizitzen. Aita Idiazabalgoa eta ama Ormaiztegikoa zituen. Bost urterekin hasi eta hamaikara bitarte, Ormaiztegiko nazionaletara joan zen eskolara. Hamaika urte zituela ezagutu zuen Gerra Zibila. 14 urtera arte ogi-banatzailari laguntzen aritu zen Ormaiztegin. 14 urterekin Irizar lantegian hasi zen lanean, ondoren Azurmendirenean ferrak egiten, "Ceramicas Celaicoa" lantegian 23 urtez, eta "Garaje Moderno" mekanika-lantegian aritu izan zen lanean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Aurkezpena

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/001
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** 1919ean jaio zen Ormaiztegin, Teilerizar baserrin. Ama Aizarnazabalgoa zen, eta aita Ormaiztegikoa. 6 anai-arreba ziren.

Transkripzioa

- Esango dostazu hasteko zure izena ta abizenak?
- Nerek oraingok die Kontxa Intxausti Peña.
- Eta ze urtetan jaio ziñen?
- Ze egunetan?
- Bai, urtia ta eguna.
- Milla beatzirehun da hemeretzin. "Diecinueve diecinueve", ilbeltza, hogeta zazpi. Elurre ein zola esan zian gero amak; elurre ein zola egun hortan.
- Eta nun jaio ziñan?
- Ormaztein, Ormaztein, bai.
- Kalian?
- Tellerizar baserrin.
- Eta nun dago, ze auzotan?
- Hori dao Beasain aldetik herrin sarreran gatorzela lenengo etxea, Irizarren ondon. Irizarren enpresan ondo-ondon dao Tellerizar. Hiru dare, Telleri, Telleriarte ta Tellerizar. Ni hor jaiota nao, Tellerizarren.
- Eta gurasoak bertakoak?
- Ez, ama Aizarnazabalgoa eta aitte bai, aitte hemengoa.
- Zenbat anai-arreba?
- Gu?
- Bai.
- Sei. Ni bakarrik geatzen naiz.
- Gaztena zara?
- Ez. Gaztegoa're hil zan, Katalina. "La mala hierba" esaten due. Holako zerbait izango naiz nunbait.

1.2. Familiako giroa

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Aisia » Kultura » Irakurtzea

Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Etxean ez zitzaien gustatu Kontxak eskola utzi izana. Geroago, josten ikasi zuen Beasainen, eta ondo etorri izan zaio etxeko gauzak eramateko. Ikasten zuenean, Errepublika zegoen. Aita errepublikanoa zuen, eta hainbat aldizkari eta egunkari irakurtzen zituen. Baserritarra, baina jantzia zen.

Transkripzioa

- Planto ein zenduenen etxan nola hartu zizuen?
- Etzien ze haundiik ein. Gero ein nun uda hortan. Klaro, hori ekaiñen

bukauko non kursoa, eta ein non, uda hortan Beasaiñea juten segi non eta egin non josten ikasi. Korteia ta. Gero oso ondo etorri zat. Ez kanporako josi dealako, baizik eta etxen famili haundie izan gea, hok e zazpi seme-alaba badie, eta ordun ba hau konpondu ta bestea zeatu ta. Oso ondo etorri zitzaian hori're. Eta hola.

-Ikastea utzi zenuenean zer zan, Errepublika garaia ordurako edo nola zan?
-Bai, Republika zeon.

-Eta ze giro zeon ordun? Zuen aitte republikanoa zan da.

-Bai baiño gure atte ez taberna batea ta iñoa etzan juten. Harrek lana, eta gero hori "El Mundo Avícola" rebistea Barzelonatik eta. Madritik eztakit ze zer zeatzen (z)un, periodiku zeon ordun, enaiz akordatzen. Eta hure hortan betaurrekok hola sudurren punttan jarri ta hure, hure baserrikoa baiño, eztakit nola esan.

-Ilustratua.

-Beste gauza horitan ibiltzen zan.

1.3. Familia errepublikanoa

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/011
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:17:59. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Familia errepublikanoa zen. Zentro errepublikanoa eta batzokia zeuden herrian, eta bere familiakoak zentro errepublikanora joaten ziren. Han zer egiten zuten aipatzen du.

Transkripzioa

-Famili gorri xamarra eta rebelde xamarra zineten danak. Attona ta bata sozialista eta bestea...

-Ez. Hok zien anaiek eta bueno republikanok. Ordun republika zeon, bueno ba republikanok. Attek esaten zon: Republike dao, republikek ematen digu hillekoa. Republikek. Lanlekun, baiño republikea zeon, egoerea republikanoa zan. Bueno ba. Gaiñontzen etzan ezerre metitzen, ezerre.

-Baiña semeak irten zien bata sozialistea eta bestea Acción-ekoa (ANV) ta.

-Republikanok. Sozialista ez, republikanok. Bai. Hemen zeon Zentro Republikanoa ordun, eta beste alderdin batzokie. Bi horik zeren. Ordun batzuk batzokira juten zien eta gurek porrejenplo ba Centro, Centro Republicano. Ta hor soiñue-ta zapatu-igandetana, bueno ba, jendea juten zan da dantza ein, da. Hor, bai.

-Centro Republicanoan?

-Bai.

-Eta Batzokian egoten zan holakorik?

-Gutxi, hor gutxi. Muruaneko hortan zeon, goien, bai. Hortako gutxi zeon, bai.

2. Baserria

2.1. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/002
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Baserriko bizimodua ona zen. Granja zeukaten, eta arrautzaren negozioa. Aitak jornala irabazten zuen. Etxean hamar senide bizi zirela azaltzen du. Baserrian ez zuen lan askorik egin behar izan. Esnea ere banatzen zuten etxez etxe.

Transkripzioa

- Baserrian umetan-eta nolakoa izaten zen bizimodua umetan?
- Ondo. Ondo. Guk genduken granja, horrekin asko manejatzen giñen. "Granja Avícola Intxaurpe"; ta genduken gerra aurretik eta hori dana, txitak etartzeko makina ta; ba hori, arrautzan negozioa, larehun bat oillo ta, enfin. Gero attek beti're nunbait lana eitten zon. Jornal bat handik o hemendik jornal bat. Eta genden attajaune, aman atte, eta genduken attajaunen anaie, Joxe Gabriel, Ameriketaa jun baiña ez zion osasunek laguntzen, nunbait, eta etorri ta gukin tzan. Da bera zan etxea-ta terrenon jabe eo, bera zan.
- Handik ekarritako diruekin?
- Baleike. Eta geo gukin bizi izandu zan. Bai. Eta sei, zazpi, zortzi..., hamar lagun genden gerrea hasi zonean'e. Bai. Hamar lagun bizi giñen, aber ze etxetan bizi dan oin jentea, hamar lagun. Bai. Eta gaiñontzen ba eskolan da. Ondo.
- Umetatik lan egin beharko zenduen baserrian, ez?
- Guk ez asko, nik ez asko, ni bosgarrena nitzen ya-ta. Nik ez asko. Zerbait bai, ittulan-da, behizai o, lo ke sea, hoi bai, baiño baserriko lana... Gero baserri haundie ere ez genduken, baserrie bai baiño, hiru behi esnetako eta gero hegazti horik. Eta, klaro, lurrek moittu ta ein behar zienen normalen iri-parea ekartzen zan eta haek manejatzen zuen gehiena, bai. Esnetaako, guk esnea partitzen gendun etxetaa, lau txakur haundi litroa, eta litro bat hartzen zonak hille pasatu ta hamabi pezta.

2.2. Granjako oiloak Beasaingo feriara

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Euskara » Euskararen egoera
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Ez daki zergatik jarri zuen aitak granja. Gerra aurretik ez zegoen horrelakorik (granjak, inkubagailuak...). Oiloak eta arrautzak Beasaingo feriara eramaten zituen bere amak, eta nola eramaten zituen azaltzen du. Bere amak ez zekien ondo erdaraz, baina bezeroek asko estimatzen zuten.

Transkripzioa

- Nola okurritu zitzaion aitari granja jartzia?
- Ez dakit, ez dakit.
- Zuk ezagutu zendun txikitatik, ezta?
- Oillok eta bai eukitzen giñutzen da. Eta bueno, baiño gero ya ez dakit nik, enkubadora ekarri ta garai hartan, gerra aurretio ba etzan. Eta gure ama ferira jutun zan beti Beasaiña. Asteartetan saskikada arrautzak eta.
- Oilluak eta danak saltzen zittuan?
- Bai, saltzen zien; baiño eittten zien, oilloi eitten zien gauen harrapatu danak, illaran egoten zien-da. Gu argie piztu ta itzaldu itteko ta. Juten zan, begiratzen zon, da: "Itzaldu argie". Eta ordun beak zeatu zona harrapatu itten zon. Eta pare bat hiru bat hola saski azpin jarri ta hurrengo goizen ya hankak lotu ta ferirako. Baiña itten zien danai olio pixkatekin kukurrek pixkat...
- Dotore itxuria eukitzeko?
- Hori da. Ze tranpak, e! Baiña bueno, jende ona zeuken, "Señora Juana" ta tal da, erdaldune asko Beasaiñen, CAFera etorritako jende asko.
- Eta berak ez zekien ya erderaz?
- Bueno, gaizki. Gaizki, harrek firmaik etzeuken da, baiño, enfin, gauza horitako asko balio zon. Eta "Hola, Señora Juana".

3. Lanbideak

3.1. Postari-lanetan

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:03:56. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Aitona postaria zen, eta denek laguntzen zioten lan horretan. Gutuna jasotzeagatik zenbat ordaintzen zuen jendeak azaltzen du. Gutun ofizialak banatzen zituzten: trenetik jaso eta banatu egiten zituzten.

Transkripzioa

- Attona karterue izan zan epoka baten.
- Bai, bai. Kartaritza beak, baiño danok eitten gendun kartaritzan. Zeatio ordun kaleako korrespondentzie bazeon baiño baserritaako're bai, eta baserritaa ba gu're jutun giñen, kalekoota ez; baiño gu're jutun giñen baserritaa. Eta hor, sobra ere, gauzak hola zeren zeatuta ta, ba paatu ber izaten zuen hamar xentimo baserritakok karteia entregatu ta eittea. Zeatio zan, ez dakit nola esaten zien, gero akordatzen banaiz esango'et.

- Frankeo edo?

- Ez, ez, bestela. Terrenon gora-beherea da, ez dakit. Akordatzen banaiz esango dizuet. Eta hola. Gaiñontzen kalen ba anaiek eta.

- Etxeari ere Karteruena...

- Batzuk bai Karterona esaten die, beste batzuk Tellerizarra, baiño. Bai, Karterone askok, karteritza genduken-da.

- Zer izaten ziren, karta ofizialak edo bestelako errekauek be...

- Ba Correos, Correos.

- Ofizialak, ezta?

- Bai, ofiziala. Trenak ekartzen zittun da trenera io -anaie zarrena ibiltzen zan asko, gehiena-. Eta hemen herrin biltzen zienak eaman eta beak ekartzen zittunak ekarri ta partittu. Hori zan. Gabiriako ta, hemendio juten zien. Gabiriko karteroa're etortzen zan da Itsasokoa're bai; gure etxea etortzen zien, da eraman da ekarri haek eitten zuen handio.

3.2. Asko balio zuten gurasoak

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/009
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aitak dena prestatzen zuen, eta bera zen tratularia, baina amak ere asko laguntzen zion horretan.

Transkripzioa

- Tratantea ama zenuen zuek, ezta, ez atte.

- Bai. Atte zan zeatzen zona, preparatu o ya ordenamentu horik itten zittuna. Baiño gero ama zan. Atte tabernataa-ta iñoa ez zan juten hura.

- Baiña tratura zetozenak eta txahala eroatera zetozenak eta azkenen...

- Ordun bai, ordun ia bai, ordun azkeneko zea attek ematen zon, por supuesto.

- Baiña kontatzen zendun ukullura jun da atte tratun da luzatzen baldin bazan, halakon baten amak esaten zun: hau luzatzen ari da ta bera jun da ttaka!

- Bai, bai, bai. Bukatzeko modue beak. Bai. Duda-mudan-da, hantxe jarrita ta benga! Hure junda ya partizioa eo bela eitten zuen. Asko balio zuen.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Ikasketak hainbat lekutan

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/004
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- **Laburpena:** Urte batzuk herritik kanpo eman zituen ikasten. 10-11 urterekin Beasainen hasi zen mojan ikasten. Gero, "bachiller laboral" ikasten hasi zen. 14 urterekin, Donostiako Peñaflores institutuan ikasi zuen. Gogorra zen Donostiaraino joatea: oraindik ilun eta hotz zegoen goizez etxetik irtetean, eta etxera iluntzean iristen zen.

Transkripzioa

- Zuk ikasten bastante denpora ein zendun herritik aparte.
- Urte batzuk bai, urte batzuk bai. Tokatu zitzaian, aber, hamar-hamaika urte nittula, hamar eo hamaika, ez dauket gogon, genduken maistra Señorita Paz esaten zien-ta, hori ya erretirau ein zan. Bizkaitarra zan da Bilbaora jun zan, eta bueno ba. Gero besta bat, baiña nik ya bestea ez nun, ez nintzen ibilli bestekin. Hasi nittuen Beasaiña monjataa. Bueno, uniformea ein ta trenen jun ta trenen etorri, ta hola monjatan urtebete ein non. Eta hurrengo urteako ein nittuen matrikulatu "para bachiller, Bachiller Laboral".
- Lista izango ziñen.
- Bai, lista... Eta bueno ba. Hor ein nittun Ingreso maiatzen, aprobatu eta hurrengo hillen ekaiñen "Primero". "Por libre" o esaten zioen batxiller horri. Anaie neuken nik ordun bigarrena maixu einda. O itten o, ez naiz akordatzen juxtu-juxtu ze urte. Eta nik uste't hura ibilliko zala. Zeatio gero hurrengo urteako, "para el segundo año del bachiller", sartu nittuen Donostiko Instituto Peñaflores. Buen Pastorren atzekalden gaur da Mitxelena. Bueno ba, horrea juten nintzen egunero hamalau urtekin, egunero trena hartu seiterdietan hemen eta Donostira. Eta bueno, han ein nittun bigarrena, eta gero matrikulatu nintzen baita, hirugarrengoa ein nun. Eta esan nun, fuera! Goorra zan. Klaro, setienbretik ekaiñeaiño izaten da kursoa. Ba egune motxa, txarra, hotza; eta amak laguntzen zian, kasi argiik ez zeon ordun herrin. Han bonbilla bat eta beste puntan beste bonbilla bat eta. Klaro, sei terditan punttun trena estazion. Eta zenbait korrika ein dean nik aldapa hortan! Bueno. Ordun beatzietan etorri. Atsaldetan "Permanencias" esaten ziguen, eta señorita bat zeon han eta harrek ba, harrekin batea ikasi o gauzak itten giñuzen. Eta klaro, hortan geldittu eta gero trena hartu eta honea etortzeako gauen beatziak zien. Baiña etxea jun, afaldu ta lana ta ingo giñutzen, "deberes"-eo etxeko lan hori. Eta bueno ba hurrengo goizen berriz'e seietan arriba!
- Aspertu ziñen eta planto.
- Bai, bai, aspertu ein nitzen.
- Egun osua egiten zendun han.
- Klaro, klaro. Goorra da, goorra da.

4.2. Baratzea eta etxeko janaria

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/010
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Soroan babarruna eta artoa hartzen zuten. Urte guztian babarrunak jaten zituzten, eta jai berezietan garbantzuak. Artoa eho eta hegaztientzat erabiltzen zuten. Taloak eta gaztainak jaten zituzten. Ogia behin edo behin egin izan dute bakarrik (errazionamendu garaian edo).

Transkripzioa

-Esan dezu ganauak eta; eta baratzean zer eukitzen zenuten?

-Baratza gutxi. Eukitzen genduna zan... Oain dao, Irizarren pabelloiak dare.

Ordun hori dana, terreno hori dana eitten gendun babarrune eta artoa.

Babarrune guetzako, urte guztin eguerdin bagenekiun zer genduken. Urte

guztin babarrunek, gozo askok gaiñea. Gero San Andresetan pixkat

aldatzeko festak-eta, eta ordun garbantzue eta jartzen zon. Baiña hori. Eta

artoa, berriz, txikitu eta ba hegaztintzako. Genduken holako errotatxo zea

bat, makina bat eta jartzen zon: "Artoa ta babea eiotzeko tramankuloa";

beak jartzen zon, e. Goien bota, bueltak eman eta ia txikituta azaltzen zan

beera. Ordurako, e! Bai, "Artoa ta babea eiotzeko tramankuloa". Beak

jartzen zon.

-Eztaikit zeñek indakoa izango zan.

-Arrasaten igual. Hor enpresa bat baza Elma, kafeterak eta egiten zituen

eta baliteke han.

-Eta hola manejatzen giñan. Urte guztin babarrune janez, eta gero garaien

talok eta. Gaztiñak-eta, danboliñen erre-ta, han aitzen giñen (...) beeko sue

ta.

-Ogirik egiten zenduen etxean?

-Ogie ez. Behiñ o behiñ ein gendun baiñe zan eztaikit gerrateko

razionamentuk zerela o zerbaitt. Klaro, zaille zan hurrengo iriñe-ta

konsegitzea. Zegatio razionauta ta jarri zittuen gauza danak-eta, baiño

bestela hola ogie eitteko zeik ez. Behiñ o behiñ eiñ, baiño ez. Taloa-ta horik

bai.

5. Herria, azpiegitura

5.1. Irakasleak eta irakasgaiak

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

- **Erref:** ORM-001/005

- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:10:09

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

- **Laburpena:** Irakasleak ez ziren oso gogorrak. Marrazketako irakaslearekin askotan Aquariumera joaten ziren marraztera.

Marrazketa lineala gustatzen zitzaion berari. Zer gai ikasten zituzten aipatzen du.

Transkripzioa

-Irakasliak, maistrak eta zelakuak zian, gogorrak?
-Bueno. Profesorek. Hain goorrak ez, segun, batzutatik bestera bere diferentzikin baiño ez, hain goorrak ez, ez, etzien. Dibujokoa, berriz, el profesor Camps, harrek askotan eamaten giñutzen al Acuarium. Karpeta haundik hartu zea azpin, besa azpin, eta beakin batea ta taldea Aquariumna. Aquariumen ba bai, bazen han arraiek eta hola baiño ibili eiten zien haek. Ordun kristala jotzen giñen eta gelditzen zienen ordun in ber dibujue.
-Zuk ondo dibujatzen zendun gaiñea.
-Bueno, eztakit. Lineala're bai, lineala gustatzen zitzaien gaiñea. Eta bueno, holako, holako komerik.
-Ze ikasgai gehiago eukitzen zenduen, Dibujua ta ze gehiago?
-Danak, danak. Geografía, Historia, enfin, Gramática, Aritmética, danak, horik danak. Baiño...

5.2. Feriak

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/008
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:15:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
 - Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Beasaingoa baino handiagoa zen Ordiziako feria, baina amak bezeroak Beasainen zituen, eta ez zen Ordiziara joaten. Beste feriatara ere ez zen joaten. Gerora, merkantzia eramaten zuten garraiolariak azaldu ziren. Amak Beasainen erosten zuen arropa, feriatik bueltan.

Transkripzioa

-Feria haundia egiten zan Beasaiñen?
-Beasaiñen ez haundie. Betitik Ordizi izan da feri haundie, haundigokoa ta, bai. Oain bertan'e ba bai. Baiño hure behiñ hasi zan eta klientela jende ezagune ta zeuzken da. Konfiantzazko arrautzea, eta bueno ba, oillandanak zerenen oillandanak eamaten [zittun] aparte, eta bai, ondo.
-Eta beste feria batzutara joaten zan, Zumarragara edo?
-Ez, ez, ez. Beste feritaa ez, beti Beasaiña.
-[...] autobusa hartuta?
-Bueno, lehen, lenengo-lenengo estaziora igual eamaten zuen. Edo sagar garaian saski saarrak da tal da karretillan-ta jarri ta estaziora trenen. Ta gero Beasaiñen eoten zan estazion baita un tal, transportistea zan, Azurmendi o eztakit nola zan Beasaiñen. Nei ahaztu eitten zat. Ba harrek

eamaten zittun, gehigo're juten zien Mutillo (Mutiloa) aldetik etorrita o, zeatik Lierni aldetik eta, juten zien, autobus o dalako hortan eamaten zittun plazaraiño, estaziotik plazaraiño, karga horik eamaten zien, da hola hasi zien. Gero ia hasi zan autobuse, ta ia autobusen, etxen paren geldittu, kargatu ta ia harrekin juten zan.

-Zer zan, herriko bat?

-E, Alegi..., este..., Gabiri aldekoa. Nola zan hori?

-Arrondo?

-Ez, Itzaiti baiño aurrexeago eskubitara daona?

-Barretxe.

-Barretxe. Hor juten zan. Eta gero ba hori, erropea zala o zer behar zan Beasaindik normalen Cortes-enen eitten zun erosketea. Cortes, en la tienda, han zeuken konfiantzea, eta hola.

-Feriarra joan saltzera eta gero bueltan etxerako...

-Hori da. Ze behar zan ba han denda hartatik.

6. Politika

6.1. Gerra sortu zenean, komitea Ormaiztegin

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/012
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:19:13. **Bukatu**: 00:20:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- **Laburpena**: Nafarrak Beasainen sartu ziren, Donostiarako bidean. Inguruko jendea ere gerturatu zen Ormaiztegin, eta komite bat sortu zen kanpotik zetozenak nola antolatu eta non gelditu erabakitzeko. Komite horretan osaba Juan Mari ibiltzen zen lanean.

Transkripzioa

-Osaba Juan Mari komitea-ta gerra hasierako hortan eta, nola izan zan?

-Hori gertatu zan ba, klaro, naparrak sartu zien, naparrak edo dana dala, sartu zien Beasaindeaiño, ta geo hor ein zuen Donostirako bidea hartu, Donosti hartu nahi zuen. Ordun hemen geldittu zan frentetxo bat bezela. Ta gero inguruko herritatio ta jentea ihesika ta honea. Etortzen zien honea ta ba, ordun bainuetxea zeon hemen, eta bueno ba, baiñuetxen, e, baiñuetxen jartzen zittuen, nunbait jarri behar jendea. Komite bat eo zeatu zuen, formatu zuen, eta bueno ba, kanpotik zetorrenak eta gero ze in behar tzan eta ze komeni zan da. Gauza horik danak ba osaba Joan Marik zeatzen zittun. Bea bakarrik etzan izango, baiña bueno, buru, bastante buru eitten zuna bera zan.

6.2. Ormaiztegitik alde egin behar

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/013

- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:20:13. **Bukatu:** 00:23:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Gerra sortu zenean, bakarren bat atxilotu zuten, baina Azpeitiko hotel batean eduki zuten preso. Gerra hasieran zergatik erabaki zuten etxetik alde egitea azaltzen du. Abereak saldu zituzten, eta Aizarnazabala joan ziren lehenengo; mutilak, ordea, frontera; eta aitona beste alaba baten etxera. Beraiek, geroago, Sestaora joan ziren; eta Bilbo hartu zutenean, Santander aldera joan behar izan zuten.

Transkripzioa

-Aiuntamentuak segittu zun lehengoak edo?

-Bai, igual, bai, bai. Azurmendi uste det zeola. Bai, nazionalista zan, baiño, ezerre. Gero bakarren bat edo beste detenittu zuen, bai. Baiño euki zuen en el Hotel nosecuantos de Azpeitia. Hotelen. Eta guardia eitten hemengo mutillek. Osea, beste iñor sartu ez dedin ba hemengo mutillek. Denbora asko etzuen eingo, baiña hola. Eta klaro, zera hori zeuken, billera ero eitten zuen lekue zeuken ordun ostatu. Aiuntamentuko gela baten. Eta egun baten, gu ordurako ya irtenda geunden etxetio, attek esan zon. Klaro, hor geldittu zienen tropak tirok botatzen zittuen aldin behin, ta gure oillok txurik zien danak, larehun bat oillo. Atek iriki eta juten zien danak korrika (Mendizabal?) alde hortaa, eta, klaro, handik sobra ere ikusi itten zittuen da, ba hori, urruti baiño bota: eta aldin behiñ oillo bat zeatuta. Atek esan zuen "hemen eztao egoteik". Ordun ia oillok saldu eta behiek e bai eta gero ya ondorenen guk irten giñen etxetio. Hamar lagun, atea itxi ta hala irten giñen. Hamar lagun.

-Eta nora joan zineten?

-Lenengo jun giñen, Aizarnazabalgoa zan gure ama ta, horruzkaldea; ezagunek eta bazittuen eta harutza. Mutillek frentea o, eta gu ba aitta-amakin da hola. Hiru ahizpa ta osaba hori ta. Attona han geldittu zan, zeatio attona horrek eitten zun, ... etzeon oin bezela jubilazioko zeik eta etzeon jubilazioik. Lana bukatzen zuen da kitto. Eta ordun hure egoten... zan sei hillabete alaba baten etxen, beste sei hillabete beste bere alaba baten etxen, eta ordun tokau zitzaion gerra hasi zanen gure etxen tokau zitzaion. Eta gustora egoten zan zeatio gure etxe hori dao kamiñon ondon; kamiñon kontra, ta iñor pasatzen bazan len jendea gehio ibiltzen zan oiñez oin baiño-, eta kaixo eta eztakit zer-da, entretenittu. Baiña beste ahizpak Aizarnazabalen, bat goien da bestea Getarin-da, han etzeuken entretenimenturik hemen bezela kamiñon pasatzen jendekin hitz eittekota, hemen oso gustora egoten zan. Eta gure etxetik irten da utzi zuen beste alaba baten etxen. Eta gero enteratu giñen eta ikaragarritzko penea zeukela ta bela hil emen tzan. Bela hil zan hura. Gaiñeatikuan gu Laredo eta eztakit nora eta Santanderra. Eta, klaro, jendea, gu bezela jende asko're bai ihes einda atzeaka ta danak Santander aldea; bibo hartu zuenen-da. Santander aldea ta, bueno.

-Trenez joan ziñaten?

-Bai. Gero bazeon... Gu Sestaon egon giñen bastante denpora. Han familie genduken, han egon giñen. Baiña gero ia Bilbo hartu zuenen-da Santanderrea.

6.3. Familia sakabanatuta

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/014
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:23:34. **Bukatu:** 00:25:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Janaririk ez zegoenez, emakumeak, zaharrak eta umeak itsasontzian apuntatzeko eskatzen zuten. Gurasoak ezik beste guztiak han joan ziren. Bi anaiek Frantziara pasatzea lortu zuten. Beste bat, ordea, harrapatu eta "Batallón de Trabajadoresen" sartu zuten.

Transkripzioa

- Eta, klaro, ez zeon janik ez, ta klaro, kanpotik ekartzeko're gerrako barkuk zaren nunbait, eta haek ez zioen uzten beste barkuei sartzen janakin. Eta gaizki. Ordun anunziatzen zuen "mujeres, ancianos, niños, que se apunten al barco", apuntea eman, ta klaro, jendea etara in nahi zuen, zeatio gosea zeon, gosea zetorren, ta gosea. Eta hori aittu, ta hori aittu, ta itten gendun, ta nik ez dakit gure aitten barrue nola eongo zan guri esateako "apuntau in beharko dezue". Klaro, ez giñakiun noa, ta ezer'e, "se apunten al barco" esaten zuen. Ordun, hiru ahizpa, eta osaba, o aittan osaba hori, apuntatu giñen barkurako. Eta geldittu zien aitta-amak bakar-bakarrik. Mutillek frenten bi zaharrenak, ta bestea zebillen txofer, ez dakit militarren batekin o, txofer. Hure frenten ez, baiño txofer. Eta bi zaharrenak konsegittu zuen Frantzira pasatzea. Eta bestea hor geldittu zan, ta hor harrapatu zuen. Txofer zebillen hori. Ta klaro, soba're horrek kartzelako pentsatzen det ez zun motiboik eukiko, eo ez dakit ba, kuestioa da "Batallón de trabajadores" horta sartu zuen. Klaro, hortako're jendea behar zuen. Zeatio zubik itteko, ta bestea zeatzeko ta, jendea, ta jornalik beko jendea gaiñea, osea han ez zeon bost xentimo're. Lana in ta kitto. Eta zeako aeroportoa beti esaten zun, beak in zuela... Galizikoa nola da?

- "La Bacolla".

- "La Bacolla", "la Bacolla", "hori guk in gendun", beti hori esaten zun, "hori guk in gendun".

6.4. Itsasontziko estualdia

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/015
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:25:28. **Bukatu:** 00:28:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Bi ahizpa eta osabarekin joan zen Frantziara, 17 urte zituela, beste 3.000 lagunekin batera, itsasontzian. Halako batean, "Cervera" ikusi zuten, Francoren gerrako itsasontzi bat, eta oso gaizki pasa zuten. Baina ez zen kanoikadarik egon. Izan ere, beren barkua

ingeleza zen (Sarastone), eta beharbada horregatik ez zioten eraso egingo. Itsasontzian egun eta erdi inguru eman zuten, eta denak pilatuta zihoazen. Frantziako Saint-Nazaire-en porturatu ziren.

Transkripzioa

- Hala, bueno, barkuako apuntau giñen, sartu giñen barkura ta...
- Ze edade zuek, ahizpak?
- Nik neuzken hamazazpi urte gerrea hasi zunen. Gero ya Frantzira aillatu giñaneako, ya hemezortzi inda neon.
- Maria Luisak hogei inguru?
- Ba, Maria Luisak, osaba baino zaharrago, hogei hogeita bat eukiko zittun.
- Eta Katalinak?
- Katalinak bi gutxigo nik baiño, bai. Eta osabak, berriz, ba ez dakit nik, larogei o zenbat eukiko zittun. Kuestioa da, sartu giñen barkun, ta tal... hiru milla laun, hiru milla laun.
- Hiru milla laun, barkuan?
- Umek, andrak... “de todo”. Eta barkun sartu, ta bagiñoazen, eta hola, tatatata, ta halakon baten, goiko eskalerilla txiki hartatiken, “señores viajeros, Cervera a la vista”. Cervera zan Francon gerrako barku bat. Ai ama, andra guztik, ume txikik eta hartuta, “aiii!”, eta danak nearrez, ta danak nearrez, ta zer zan hura, “nos echarán un cañonazo!”. Bueno, pasatu gendun oso gaizki, oso gaizki.
- Gaiñera hainbeste jentekin?
- Ez giñakiun. Bai, hiru milla, hori esan zuen, hiru milla. Eta bueno, hortan pasau zan denborea, ta denborea, ta denborea, ta kaiñonazoik ez, ta bueno, harrituta, baiño bueno. Ta ya hurrengo egunen, aillatu zean, ta esan zuen, “tierra a la vista!” esan zuen, ta joño. Ez giñakiun nun ta zer, baiño, guk ez giñakiun noa giñan, noa giñoatzen.
- Baiño zuen barkua inglesa zan ezta?
- Gero enteratu giñen, klaro. “Sarastone”, ez zat ahaztuko, “un carbonero inglés”. Nunbait inglesa ikusi zuenen, ez zien atrebittu kaiñonazoik botatzea, pentsatzen deu horreatik izango zala. Bestela ez giñan librauho. Bai, eta aillatu giñen, ba Saint-Nazaire, hor badau puerto inportante bat, bastante goien Frantzian. Hautza aillatu giñen, ta mahaiek jarrita zeuzken, hola pintxokin, ta jo, guk genduken gosekin ta, oso ondo.
- Zenbat denbora bezela barkun?
- Ez dakit, egun ta erdi o... Hemendik horrea juteko, egun ta erdi o hola pasatuko gendun, ez dauket juxtu-juxtu baiño.
- Eta han ze egoten ziñaten barkuan, danak zutik edo bazekazuen nun...?
- Ba, hori, zutik, o etzanda, o lurren, o “lo que sea”.
- Baiña danak pillatuta ez?
- Klaro, han ez zeon zeaik. “Era un carbonero inglés”. Sarastone.

6.5. Arnay-le-Duc herrian finkatzen

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/016
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:28:15. **Bukatu**: 00:31:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

- **Laburpena:** Frantziara iritsi zirenean, trenak eta autoak zeuden haien zain. Beraiek Suitzako mugako herri batera eraman zituzten. Eta handik, Arnay-le-Duc herrira. Eskolako pabiloian prestatu zieten lo egiteko lekua. Gerora, harraska eta sua prestatu zieten; eta arropa kaleko latsarrietan garbitzen zuten. Gauzak erosi bai, baina ez zituzten ordaindu behar izaten. Kontxak frantses gutxi zekien, eta harekin moldatzen zen.

Transkripzioa

- Eta horrea aillegatu giñenen sopra ere ba trena zeuken preparauta ez dakit zenbait kotxekin, eta bueno, hautza sartu, beste kotxea sartu, beste kotxea sartu, eta trena abittu zan, eta aldin behin geldittu eta kotxe bat estazio hartan geatzen zan, kotxe bat han barrun zijon jentekin. Hurrengo berriz e benga ta benga ta benga, ta hurrengo estazio baten beste kotxe bat eta hola. Ta gu eaman giñutzen hasta Dijon. Eskubi aldea hor Suizako fronteran bastante gertu. Bastante gertu o bueno. Hautza eaman giñuzen. Ha utzi giñuzen eta handik autobusen herri batea, ez dakit, berrogeta hamar kilometro hola egongo ziela esaten zuen. Arnay-le-Duc, Cote d'Or, Hautza eaman giñuzen, hogeta hamar giñen. Ordun uda partea, klaro, ekaiñe ez, maietza, agostue, agorra, aber. Garagarrille, uztea, aber. Julio, agosto, setiembre. Hiru hillabete izaten die hor udan, ezta, oporrak? Bai. Eta ordun eskolako pabilloia libre zeon, eta ordun in ziguen buelta guztin ohiak jarri, ohiak: bi banketa, hiru tabla eta gaiñen txorrokakin indako koltxoak. Bakizu txorroka zer dan?

- Bai, artuan...

- Azal lehorra. Osea, txorrokakin indako zeak. Eta bueno ba, buelta guztin berdin mahi luze bat. Hoeta hamar laun, attonak, amonak eta gaztek eta umek, osea, "tuti le clas" esaten dan bezela.

- Eta hizkuntzakin?

- Hizkuntzakin? Ba gu geron arten-ta oso ondo. Gero genduken, in zuen zea bat, ez det esango, teillatu txiki bat ein zuen kanpon eta han jarri zuen, klaro, fregaderea, eta bestea zer zan? Fregaderea ta sue. Klaro, bazkariak eta itteko ta ontzik garbitzeko. Gero erropea ta hori etxeko labaderotan, kaleko labaderotan, ordun kalen zeren labaderok, hemen e egon zan Ormaiztein e, eta kaleko labaderotan han garbitzen giñuzen erropak. Bestek bezela. Eta erosketak eta itteko izaten giñen hiru-lau asten, emakumak han gendenak. Erosketaik ein, libretak genduzken, erosketak ein, guk ez genduken bost xentimoak, baiño gobiernuk paatzen zola esan ziguen. Izango zan "Gobierno de Euzkadi, por supuesto". Ordun dana apuntauta ta zeatzen gendun ta. Eaman, preparatu ta, osea. Gero mahien jarri danak han, bazkaldu ta.

- Zelan egiten zenduen, erosi eta pagatu ez?

- Ez ba, apuntatu libretatan, apuntatu libretan. Eta nik ordun nola ikasi berri nun, da frantsesa nekin; oain ez dakit. Baiño "le pome de terre" eta "no se qué ta, osea ke" bai. Eta hola ibiltzen giñen.

6.6. Frantzian lanean

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/017
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** "Tapaculosak" (larrosaren parte gogorra) jasotzeko lana eskaini zieten. Zer komeria izaten zituzten haiek biltzeko kontatzen du. Irabazitako dirua etxera gutunak bidaltzeko erabiltzen zuten.

Transkripzioa

-Gero hortan gendela esan ziguen "si queríamos recoger tapaculos".

Bakizu zer dien?

-Ez.

-Hori die larrosan orrik atzekalden eukitzen due ba holako gauza goor bat; larrosan orrie ta gero atzekalden. Hori, bai. "Tapaculos" esaten zaio horri. Eta horik. Eta "para qué?" "confitir" (confiture) esan ziguen. Konfitura. Ba eztakit, aizu. "Confitura aquello?" Eta "a franco el kilo que nos pagarían". Bueno.

-Hori batzia, ezta?

- Bai, bai. Hori billatu ta. Ordun zeren hola itxiturak behiekin, behiek eta zezen bat. Eta hurrengo besta bat, eta hurrengo besta bat. Bastante... Suiza aldea zeon hori ta eztakit horregatio o zer; kwestioa da ba juten giñen eta bat geatzen zan beti ate ingurun eo, eta bigilatu zezena nundik noa zebillen. Egurrek hola bi eo hiru tabla zeuzken. Klok-klok!, eitten zun, klok-kol! Eta jendea ba zeak harrapatzen-da bueltan. Eta halakon baten: "badatorrela, badatorrela!", ta-ta-ta danak ate aldea; ateik etzeon, lekue, irtetzeko lekue ta. Hola, hola entregatu ta bueno ba, "a franco el kilo" pagatzen ziguen, eta harrekin sobrea ta seillue ta honea eskribitzeko, guk bost xentimo ez genduken. Je-je, ta hola.

6.7. Osabak Beasainera itzuli behar

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/018
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:33:36. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Ormaiztegin gelditutako izebei idazten zieten Frantziatik. Haien bidez, familia guztiaren berri izaten zuten. Osaba Frantziatik Irunera etorri zen, agindu baitzuten beren ondasunak utzi zituzten jabeek komandantziara azaldu behar zutela. Han azaldu zenean, atxilotu egin zuten. Baina alkateari esker, aske utzi zuten.

Transkripzioa

-Eta han zeundeten denporan euki zenduten kartaz edo hemen gurasuekin-da harremanik?

-Bai. Hemen Ormaztein geratu zien atten, nere atten bi arreba ezkondu ta; bi, gaiñea, zeren, zea, alargunduta. Haek hemen geldittu zien, da gu Frantzira jun giñenen hairi idatzi giñen?? Nunbait atta-amak Santanderren geldittu zienen e hairi idatzi zien. Ordun haien bitartez guk jakin gendun eta gurasok e bai. Hori genduken zea. Eta ordun harek esan ziguen ba nola

atte ta ama geldittu zien eta anaie, hiruetan gaztena, ba Batallón de Trabajadores-etaa eaman zuela eta hola. Eta gu ba han genden hiru-lau laun, eta ya ailleatu zan hirugarren hille o, ailleatu zan hori eta bueno ba batetik bestea jarri ziguen "la frontera de Barcelona o la frontera de Irún", esan ziguen. Eta guk ya ke izebak hemen, etxea're hor zeon eta atta-amak Santanderren-da, bueno ba, Irúna. Eta hortako aurretio izeba horitako batek idatzi zion osabai, osea, gure atten anaia, gukin bizi zan horrei, esan zion nola etorri zan ordena bat halako egunetako presentatzeko "los que habían abandonao sus bienes". Periodikon sobra ere etorri zan.

-Hura zan etxeko jabea, ezta? Tellerizarreko jabea bera zan.

-Jabea bea zan, bea zan, bai. Amerikatatik etorri ta sobra ere bea, etxea ta etxetik gora zeren terreno harek danak. Eta ordun ba han hitz ein gendun, aiuntamentura jun da ein ziguen zertifikadu bat. Klaro, trenen sartu Dijonen eta Irúnaiño sin saber decir ni "oui", harek ez zekien frantsesez ni "oui". Ta, klaro, edadea ta bakarrik; eta klaro, etorri in behar izan zon egun hortako, izentatuta zeuken eun hortako. Eta ordun izebak, izeba eamatea jun zan Irúna, eta harrek lagundu zion, eta, klaro, ordun komandantzie zeon Beasaiñen, eta hautza presentatu behar zun. Jun zien bik eta kuestioa da han detenittu in zuen.

-Osaba hori?

-Ordun izeba jun omen zan alkatena eta esan omen zion, ezaguna zun, da esan emen zion: "Aizu, Martín, hola ta hola, hau ta hau gertatu da eta aber ze ein leiken o zer". Eta esan, bueno, "Nere esku daon guztie, nere aldetio daon guztie ingo det" esan ziola. Eta hala hurrengo egunen libratu zuen.

6.8. Berririo etxera

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/020
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:36:57. **Bukatu**: 00:38:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martín
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
 - Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Osaba etxera joan zenean, dena hustuta zegoen, dena eramán zieten. Herriko lagunek lagundu egin zieten, eta gauza batzuk eman zizkieten; beste batzuk erosi egin zituzten. Donostiako Beñaran enpresarentzat egin zuen lan Kontxak. Familiako guztiak pixkanaka elkartu ziren berririo etxean.

Transkripzioa

- Beasaindik etorri, etxea iriki zuen eta etxea hustuta. Eta genduzken ba beatzi ohi, koltxoia, mantak, izarak, ontzik, jendea, osea, danak, danak. Danboliñe, osea, eske danak. Gaztaiñak erretzen giñuzen danboliñe ta danak eaman ziguen. Etxea hutse. Ordun jendea ezaune ta lagunek e bagenduzken herriin, por supuesto ta, ordun batek koltxoi bat eta bestek halako ta bestek bestea-ta. Pixkat eitten jun giñen da guk e zerbait erosi-ta. Ni hasi nintzen berriz e Beñaran, Donostiko horrentzako, ezaune gendun, Almacenes Beñaran, eta horrentzako lanen puntu eitten, beatzi urte ein nittun, goizen jeiki eta gauea arte. Ein zeiken guztie ein ein behar zan gero kobratzeko. Klaro, [...]. Ordun ba bi mutil zaharrenak Frantzín eta

gu etorri giñen Frantzitik, osaba hori're bai, gero atte-amak Santanderdik, eta bueno, hor hasi giñan atzea berriz e bizimodue.

6.9. Senideak kartzelan

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/021
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:41:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Ama bi aldiz eraman zuten kartzelara. Behin ama, izeba eta lehengusua eraman zituzten Tolosako kartzelara. Kartzelan, Errusiar batzuk ezagutu zituzten, eta haiekin izandako elkarrizketa kontatzen du. Lehengusina azkar samar geratu zen aske, baina ama eta izeba Donostiara eraman zituzten geroago. Maiatzetik Gabonak arte egon ziren kartzelan, baldintza txar samarretan. Kartzelara gutunak idaztean, zentsura pasatzeko, "La tía Brígida" deitzen zioten gerrako bandoetako bati.

Transkripzioa

- Gero kartzelak eta bai. Gure ama, erderaz ez zekien eta firmaik eta ez zeuken-da baiño. Bueno ba, bi aldiz kartzelaa.

- Ama?

- Bai. Eta iñoi ezer ein gabe genden gaiñea, e! Osea nada. Egun baten eaman zittuen ama, izeba horietako bat, alargune, eta beste izeban alaba. Pilar Mercero ta izeba Matea. Eaman zittuen. Eta Tolosaa. Han euki zittuen, hori ez dakit nik, Marzo o febrero, ez dakit ze izango zan. Eta Tolosaa. Kuestioa da han zeren baita beste preso gehio eta ean arten ruson batzuk e bai, eta "Pilartxo!" esaten emen zien; gaztea nere lehengusue, gaztea nere edadekoa. Ta "Pilartxo" ta esaten emen zioen, "que habían venido a traer chichivitas y que les habían detenido" Rusiko horik. "Chichivitas" zer die?, eta lentejak. Sobre ere janakin zetorzela eta Francon barkuk detenitu ta kartzelan da hor; auskalo nola ibilliko zien. Eta hola. Gero lehengusue, Pilar hori, nobioa zeuken da harrek modue inda edo ez dakit, kuestioa da bela irten zala. Eta maiatzen-eo hola izango zan ama ta izeba Donostira eaman zittuen, eta izan behar zon "a raiz del Fuerte de San Cristobal", Naparrokoa. Hortik ihes in emen zuen preson batzuk, eta horreatik in zittuen kartzelatako bisitak eta jan-sartze horik eta danak suspenditu. Danak suspenditu. Ordun zeuken deretxoa ba asten postal bat eittea eta guk erai, preso zerenai postal bat baita asten. Eta klaro, amak ez zekin eskribitzen ta izebak itten zigun karteia; eta guk, karteia ez, tarjetea, ta guk e bai ta hola. Klaro, zensurau itten zuen-ta iriki behar zuen. Eta hala egon giñen hola Gabonak arte.

- Denbora egon ziren.

- Bai. maiatzatik Gabonak arte. Ikusi bae eta janik sartu gabe. Han ematen ziuenakin da kitto.

- Ama eta izeba?

- Ama ta izeba, bai. Attan arreba. Eta, nola zan kontraseñea? Behin o behin esan dizut ba, gerran kontraseñea. "La tía Brígida" o, ez dakit nola zan. Ordun "la tía Brígida palla, la tía Brígida paquí". "Porque la tía Brígida el

otro día ha tenido un ataque y no se qué y está bastante mal". Hori zan beste alderdiko Franconak "que había echao un ataque a no sé donde" eta halako herrie hartu zuela-eo. Eta hurrengo berriz "la tía Brígida" hobetogo zeonen. "Osea, cuando no, osea" hori ibiltzen zan, "la tía Brígida" hori ibiltzen zan atzea ta aurea. "Mejor, peor, dependía". Eta hola. Gero Gabonetan ya altxatu zuen kastigu hori eta bueno, han jun giñen bisitatzea ta, jana eaman da. Gure amak, ez dakit, urtebete ta ze in zon. Eta izeba Mateak in zittun hiru urte ta egun batzuk.

6.10. Zergatik kartzelan

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/022
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:41:52. **Bukatu**: 00:43:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Ama, izeba eta lehengusua kartzelan zergatik egon ziren azaltzen du. Komeria handiak izan zituzten garai hartan.

Transkripzioa

- Ez zetsuen esaten ze arrazoigatik kartzelan?
- Ez, ez. Klaro, izebak eta lehengusuk in zuen hor baiñuetxen, klaro; esan dizuet lehen nola kanpotik etortzen zan jendea ta, hori garbitzea juten zien, bata alargune eta bestea alargunen alaba txanpon bat etaatzea; garbitasune ta ohiak eta tal da. Hori zan pekatu guztie. Eta gure ama berriz ba. Hemen aurretio komandante bat etorri zan bizi izatea. Komandante bat. Eta urretio, e, bastante denbora aurretio. Bazekin sobra ere zer zekarzen? zeoze zekarren. Eta "que de nuestra casa salió una niña en el momento que pasó la señora del militar ese". Eta gero hura ez dakit nik Beasaiñen detenitu eo ze in zuen. Eta "y esa niña tenía que ser yo, porque otra niña no había en aquella casa", entenditzen dezu? Baiño gure amai, por la niña no, baiño bea, nere partez bea sartu zuen. Beak ezer ikusi be, zer ikusirik ez zeukela gauza horrekin. Baiño sartu in zuen. Gero tia Mateak hiru urte kunplittu ta bitarten lehengusu Angel gukin eon zan, bakarrik zeon da. Atteik ez zeuken, senideik ez zeuken da gaztea zan da gukin egon zan. Eta ibilli giñuzen, esaten dizut, boff!, unos jaleos...

6.11. Tedeumak

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/023
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:43:29. **Bukatu**: 00:44:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Politika eta Franco
Politika » Gerra zibila (1936-1939)

- **Laburpena:** Tedeumak: Francoren tropek zerbait hartzen zutenean egoten zen ospakizuna. Familiakoren batek joan egin behar izaten zuen nahitaez.

Transkripzioa

- Sekretarioarekin-eta, Aiuntamentuan-eta Tedeum-ak eta izaten zien, ezta?

- Bai, bai. Zerbait hartzen zuenen-ta berealdiko kanpaiak-eta. "Ba, oaiñ e hartu due ba zerbait", Francon tropak. "Hartu due ba". Eta etortzen zien, neskazar batzuk bazeren eta hiru bat edo hola ta, gure etxera. Etortzen zien da: "hemen datorze, hemen datorze". Bueno ba, ateko lana nik neuken. Beste ahizpak beste zea batzuk. Ordun jotzen zuen aldabea, irikitzen nun: "De parte del comandante que hay Tedeum a las siete para asistir". Eta bestek: "sí, sí, para asistir". Ta baten batek jun behar Tedeumea. Ta elizan funtzioa eitten zuen, eta "que habían cogido no se qué tal", eta. "De parte del comandante".

- Zer zan, zelebrazio bat. Ospakizun bat, hartu zuela ta.

- Bai, ba. Hori da, hori da.

- Jun eta etxe guztietako jentia juntau.

- Hori da. Nik ez dakit danetaa juten zien, baiño gurea behintzat ez zitzairen ahazten. Aldabea jo ta tal. Nola hain gaiztok giñen. Eta ordun juten zan osaba hori, atzen osaba hori juten zan Tedeumea.

6.12. Anaia 6 urte etxetik kanpo

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/024
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:44:49. **Bukatu:** 00:46:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Anaiak 6 urte egin zituen etxera etorri gabe, udaletxeko idazkariak ez zuelako nahi baimenik eman hura armadara pasa zedin, horrela etxera etorri ahal izateko noizean behin. Anaia Galizian eta Andaluzian ibili zen lanean "Batallón de Trabajadores-en".

Transkripzioa

- Gero anai gaztena nola "Batallón de Trabajadores"en zeon, permisoik ez zeuken eta harrek nahi zon ejerzitorea pasa eta soldadu egon ezkerre ba aldin behin dauketzu hiru o lau o bost egun "o lo que sea" etxea juteko, ezta?, ejerziton darenak. Eta hori nahi zon beak. Ordun inpreso batzuk badare-ta da tal da, esan zigun. Bueno, inpreso horik billatu giñuzen, bete re bai, bi firma billatu re bai, eta eaman ber zan aiuntamentura. Sekretario zar bat bagenduken oso gaiztoa ordun, eta leitzen zun papela: "tris-tras!, a la papelera". Kitto. Eta hola in zittun sei urte anaiek etxea etorri gabe. Ez zeon aprobau bate, eta sei urten Batallón de Trabajadores. Gero zeatik jun zien Andaluziara; Andaluzian hor ez dakit ze lekutan egon zien baita lanen. Gero ia halakon baten...

- Kortijo bat.

- Bai: Cortijo de doña Filomena Diaz.

- Hori Andaluzian?

- Andaluzin, bai.
 - Eta aurretik nun zeuan?
 - Galiziko areopuertoa itten. "El areopuerto de Galicia". "Hori guk in gendun" esaten du, esaten zun, oaiñ hilda dao baiño. Bai, hori esaten zun. Eta bueno, etxea etorri zan-ta, hasi zan betiko taillarren lanen-ta; hola. Eta kuestioa da...
 - Sei urte ein zittun?
 - Bai, sei urte "Batallón de Trabajadores"en; sei urte in zittun. Bat'e etorri be etxea. Gero ya hasi zan lanen-ta.

6.13. Senide ugari kartzelara berriro

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/025
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:46:42. **Bukatu**: 00:50:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Egun batean polizia etorri zen etxera, eta bertan zeuden lau senideak atxilotu zituen. Zumarragan bizi zen anaia ere atxilotu zuten. Baina osaba eta berak egunero udaletxera joan behar izaten zuten. Egun batean gutuna iritsi zitzaien Donostiako auzitegira joateko esanez, eta harrezkero ez zuten presentatu beharrik izan. Baina beste guztiek kartzelan jarraitu zuten oraindik. Haiek bisitatzeko nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Egun baten ba polizie etorri zan etxea, eta etxeko danak... Klaro, ordun etxen genden atte, ama eta anai hori taillarren lanen haek etorri zienen, eta ni. Eta beste ahizpa gaztegoa zeon enkargura junda, enkargura junda frenten zapaterie-eo zeon, konpontzen zuena zapatak, konpontzen zittuena zapateroa ta, hautza junda ta, klaro, harrek handik ikusi zittun polizik eta, ikusi giñuzen gu etxetik irtetzen da. Guk ez giñun esan "la hermana", ez giñun esan "que teníamos más hermanos, nada". Eta hure handik kristaletik hola beira uste det geldittu zala pasauta polizikin. Gu eguerdiko hamabitan kalen aiuntamenturaino. Atte, ama, anaie eta ni, laurok. Eta ordurako zaharrena ezkondata zeon ya Zumarraan. Eta hura're detenittu in zuen Zumarraan. Ordun hiru, lau, lau laun, lau laun kartzelaa. Hondarretaa eaman zittuen. Ez dakit zenbait denbora eingo zuen, nik gauza horik danak ahaztuta nao. Zenbait denbora ingo zun, baiño.

- Udaletxera aiuntamentura joan eta...

- Eta osaba hori eta ni esan ziguen: zuek presentatu egunero aiuntamentun. "Todos los días a presentaros en el ayuntamiento". Bestek eaman zittuen trena hartu ta Donostira ta gu hor. Hala biok juten giñen, eta gero bitarte hortan tokau zan sekretarioa aldatzea, eta ordun zeon, nola zan hori? Hil zan hori're. Sekretarioa Ormazteikoa.

- Mújika? (...)

- Ez, Andres Marin da atte.

- Letamendia?

- Letamendia. Eta juten giñen osaba hori ta ni, eta esan ziun: "Biok etortzen ez zaittezte ibili, zu etorrita nahikoa da", nei. Bueno, ordun

egunero juten nitzen, eta halakon baten abixoa: Donostiko "el juzgao número no se cuantos", eta halako eunetan, ilbeltzan hamarra izan behar zon, "que nos presentaríamos en el juzgado número tal en San Sebastian a la nueve de la mañana. Jolin, a las nueve de la mañana", ba sei terditako "tren famoso" hartan jun ber izan genun eta elurre ai zon, eta ordurako nola izeba horrek ia hiru urte kartzelan inda gukin zeon etxen, ba lagundu zigun estaziora osaba horri ta nei, eta oiñetako zea batzukin jun giñen, klaro, lurre, elurre ai zon da haek hartu zittun, guk zapatak eta jarri ta Donostira. Jun giñan hautza juzgadu hortaa, eta papel batzuk etaa zittun han zeak eta, leittu zun ta-ta-ta, ez dakit ze leittuko zon, "Y quedan ustedes en libertad", esan ziun. Bueno, hue gauza haundie zan.

- Baiña bestek oraindik kartzelan.

- Bestek oaindio kartzelan. Ordun ein gendun goizen gizonezko baldin bazeuzken bisitak, goizen atte ta anaie bisitatu, et atsalden ama eta ahizpa. Eta illuntzen beatzietako trenen etxea etorri. Osea, hola.

6.14. Denak aske aita ezik

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/026
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:50:24. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Gerora aske utzi zituzten denak, aita ezik. Aita Alcázar de San Juaneko (Ciudad Real) kartzelara eramán zuten. Eta harako bidean, Ormaiztegitik pasatzerakoan, trenean agurtu ahal izan zuten. Handik gutxira itzuli zen, eta Martuteneko kartzelara eramán zuten. Laster askatu zuten.

Transkripzioa

- Gero libratuko zittuen. A!, atte eaman zuen, bestek libratu danak eta atte eaman zuen "al Alcazar de San Juan". Nun dao hori?

- Kordoban-edo?

- Kordoba, Ciudad Real-edo ez dakit nun daon.

- Ciudad Real igual izan leike.

- Alcazar de San Juan. Hango kartzelaa. Gure atte ez taberna batea eta ez iñokin eta ez ezerre, kartzelan euki ta gero "qué? A esto". Eta ordun zeon Donostiko Ondarretan kartzela, zeon apaize; nola esaten zaio horri?

- Kapellaua.

- Capellán. Azpeitiko euskalduna, Joxe Mari, ez dakit nola zan. Eta bueno ba. Gukin bazeuken relazioa, hautza jun da hitz eitten gendun beakin-ta hola ta. Abixoa bialdu zun: nola korrean gure atte pasatzen zala hemendio, eta nahi bagendun estaziora jun da berakin eon. Jolin, jun giñen estaziora ta leihora irten zan, hola bestekin lotuta, Guardia Zibillekin-eo lotuta eskue. Leihora irten-ta, gizajoa!, ze tripak eamango zittun harrek. Geo Alcazar de San Juan. "Y porqué?", "Y por nada".

- Eta hango kartzelara.

- Hango kartzelara. Han ez zun denbora asko ein. Eta hure bueltatzeako ya Ondarretak ez zun funtzionatzen, zeon kartzela berrie Donostin.

- Oraingoa, Martutenekoa?
- Oaingoa, Martutenekoa. Osea ke probatu zittun Ondarreta, el Alcazar de San Juan eta beste hau. Horrea sartu zuen eta hor eun batzuk in zittuen da ya etxea. Hiru kartzelatan ezer ein bae.

6.15. Pistolaren istorioa

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/028
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:54:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Ezagun batzuk etxe paretik pasa ziren, eta pistola bat utzi zuten etxean, bueltakoan hartuko zutela esanez. Gerora, polizia harrapatu egin zituen haiek biak, eta Kontxiren anaia deklaratzera eramane zuten. Pistola non zegoen esan behar izan zien.

Transkripzioa

- Juan Marin ezaunen batzuk behintzet, anaie, da ordurako Frantzin da tal, eta ordun harren ezaunek, bata Eibarkoa eta bestea, ez dakit, gaillegoa o zer zan, eta gure etxetio pasatu zien, eta "que iba a no se donde y tal!, da klaro, Juan Mari ezaune zuela ta hola esanez, "eta esto vamos a dejar hasta la vuelta"; eta pistola bat. Baiño Xanti anaie ez zeon etxen, bestela ez zien utziko. Baiña gure attek ba ez zan hortakoa ta pistola han utzi ta "a la vuelta que ya cogerían". Gehioko zeik pe. Eta gero zer, da horik bik detenitu in zittuen da esan behar zuen, esanik izango zuen "que habían dejao ahí la pistola". Eta ordun ba Xanti, Xanti tuvo que declarar da harri uste det pasarea eman zioela Donostin eta ekarri zuen eta erakutsi behar izan zien nun zeon; zeatio harrek taillarretik etorri zanen lana inda eta pistolea han ikusi, harrek ya, klaro, attek soldauxkaa jun gabe, harrek ez zekin armen kontuik ezerre gure attek, eta ez zion gehioko inportantziaik eman, baiño Xanti etorri zanen zaku batekin zeatu ta goiko terreno horitan han zea bat bazeon hola zulo bat zea bat, hautza zeuken eamanda. Ta ordun ekarri zuen eta erakutsi zien nun zeon da hala.

-Lenengo erreka.

-Erreka bai, lenengo erreka, erreka bota zola. Eta ekarri zuen submarino zeakin da, ordun ure zijoan errekan, oain ez dao.

-Submarinistak.

-Sumarinistak. Eta begiratu zon eta etzeon eta gero esan zon han zeola. Eta bueno ba, handik eaman zuen pistolea ta gero ya denboreakin etxea. Baiño hori da.

6.16. Alkatearen mehatxua

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/030
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:55:03. **Bukatu:** 00:56:58

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Gerraostean herrian egon ziren alkateak beren aurka zeuden. Alkate batek behin beldurra sartu zien, ondasunak bahituko zizkietela esanez. Baina ez zen halakorik gertatu.

Transkripzioa

- Zer giro zeuan herrixan gerraostean?

- Bueno ba, ez dakit nola esan. Zeon (Ezukitza?) alkate bolara baten, hurrengo Telleria ladrillo fabrikakoa, Joxe Mari. Eta horik gure kontra zeren; eta, klaro, gure attek ez zun etsitzen ta, klaro, behi bat erosi zon. Bueltatu ta ein giñenen behi bat. Eta ume itteko jarri zan, umea in zon, txahalantzako gero ba nola ukuillukok eta etxekok danok eamanda zittun trastek, ba amai esan omen zion: "Beasaiñeaiño noa eta aber katea ekartzen dean txahala lotzeko. Eta ordun ba jende asko Beasaiña eta hola oiñez. Oiñez lenao bastante ibiltzen zan jendea. Eta hala Beasaiña zijoala alkaten etxe paren alkatea jetsi eta esan emen zion: "Oaiñ'e etorri da ba zuentzako zerbaitten, ez dakit, zean bat, gauzak kentzeko, ez dakit nola ze hitz esan zun.

- Enbargon bat edo hola?

- Enbargo edo zerbait badator zuentzako. A, bai? Eta ordun ya ze in zon attek? Ba klaro, Beasaiña juteko partez eta katea erosi eta txahala ta hori dana, etxea bueltatu. Eta amak esan emen zion: "Jesus!, bizkor ein dezu bueltea Beasaingoa". Eta "Bai, hola ta hola alkatea irten zat eta hau ta hau esan dit. Ordun hori itten baldin badigue ba, kate billa ze itteko?". Ta hola. Ez zan ezerre etorri, baiño behintzat... Dana holaxe, dana holaxe.

6.17. Familia bakarra gerra-denboran Ormaiztegi uzten

- **Hizlaria(k):** Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** ORM-001/031
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:58:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Herrian alkateak beren kontra zeuden, baina herrikoak ez. Beraiena izan zen familia bakarra gerra garaian Ormaiztegitik irten zena. Gerrak 15 egun iraungo zuelakoan egin zuten alde.

Transkripzioa

-Orduan herrixan ez zeuan iñor laguntzekorik-edo?

-Bueno, jendea normalen bai; oaiñ, autoridadek, lehenengo egon zan alkatea eta beste horik bik behintzat batez. Gure kontra. Zeatik ez dakit.

-Famili bakarra izan zineten, ezta, irten zana?

-Bakarra. Motillek eta bai irten zien, e, etxetatio ta Bilbaora jun ta tal, baiño familie osoa gu bezela atea itxita jun gu bakarrik. Ta guk ordurako ya ba hainbeste hegazti eta hainbeste zea bagenduken, baiño... Holakoik pentsatu gabe, klaro, hori dana pentsatu bagendu, ez dakit.

-Azkenian hoberako izango zala pentsatu...
-Klaro, klaro, klaro! Hegaztik-eta tiroka-ta zean da, "goazen hemendio!".
Esanez bezela hamabost eun iraungo zola gerreak-eo hola esaten zan.
Hamabost eun, bai. Eta bueno, hola, hola irten giñan.

6.18. Santanderren bizi izan ziren gurasoak, aitaren lankide bati esker

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Peña, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: ORM-001/032
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:58:02. **Bukatu**: 00:59:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Lanbideak » Trenbideko langileak
- **Laburpena**: Beraiek Frantzian zeuden bitartean, Santanderren egon ziren gurasoak. Aitak tren-estazioan egin zuen lan. Eta lan horretan ezagututako lagun bat Santanderrekoa zenez, haren etxera joan ziren gerra garaian.

Transkripzioa

-Zuek Frantziara joan ziñetenean gurasoak Santanderren egon zian denbora guztian?

-Ba uda hortan, aber. Bai-bai, uda hortan bai. Santanderren egon zien. Zeatio zeuken ezaunen bat gure attek. Klaro, gure attek lana itten zon, azkenaldira behintzat, bastante denboran, estazion, "de guarda agujas", eta gaiñea itten zon serbizioa gaueko hamabitatik goizeko zortziretaa. Ta ni Donostira juten nitzen ordun sei terditan, bea beti estazion egoten zan; osea ke behin e etzian trenik ihes ein. Hure zeon han, ez non paatzen gaiñea, trena, zeatik neuken karnet bat atte ferrobiarioa zalako, langillea, eta harrekin ez non paatzen. Klaro, gure atte zan ba hori, entenditzen dezu?, memorie ta tal da handik eta hemendik eta. Legezko gauzak baiño behintzat zeakin, ezta. Eta beti jornal bat, hori bai, beti jornal bat.

-Santanderreko laguna zer zun, trenetakoa baita?

-Bai, bai. Eztakit faktore eondakoa eo, zeatik ordun hor zeren, jefea zeon, etxebizitzea. Jefea hor bizi zan estazion, oain ez dao etxeik eta ezer. Jefea, bi faktore ta bi guardaguja; osea ke bost laun. Oain ez dao iñor. Eta faktore haetako bat nik uste det Santandergoa zala, eta gero attek ez dakit ze relazio mantenduko zun beakin edo zer, kwestioa da harren etxea jun zan, Santanderra jun giñen harren etxea. Bai. Eta han egon zien aiketa osaba Frantzitik etorri ta ein arte.

6.19. Hezkuntzako hizkuntza-ereduen sorrera

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Lasa, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ORM-016/030
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:06:34. **Bukatu**: 01:08:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Euskara eta politika

Euskara » Euskararen historia

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

- **Laburpena:** Parte-hartze zuzena izan zuen hezkuntzako hizkuntza-ereduen kontuan, Xabier Mendiguren eta Mikel Lasarekin batera. Eusko Kontseilua Nagusia, Karlos Santamaria zen Hezkuntza Sailburu. Mari Karmen Altzueta. Gizarte-laguntzaile eskola sortu zuen eta gerora bere zuzendari izan zen hezkuntzan. Eskolara guraso erdaldunak zituzten haurrak joaten hasi zitzaizkienean planteatu zuten ereduena.

Transkripzioa

Neri gero gertatu zitzaidan: irakasle Santo Tomas Lizeon gero Magisteritza eskolan... Parte-hartze zuzen-zuzena izan nuen, ia Trantsizio garaira hurbiltzen hasi ginenean eta, gaur egun hezkuntza-ereduak esaten deguna: A, B, D. Hor Xabier Mendiguren itzultzaileak zerrikusia izan zuen eta Mikel Lasak eta baita beste batzuk ere, eta baita nik ere. Eta, hortan, Eusko Kontseilu Nagusia –Consejo General Vasco– martxan jarri zanean, don Karlos Santamaria Hezkuntza Sailburu, berarekin batera Mari Karmen Alzueta, nik asko estimatu nuen emakumea, Santo Tomas Lizeoko lehenengo zuzendaria eta gizarte-laguntzaile izan nuen garaian, Gizarte-laguntzaile Eskola sortu zuena eta bertako lehen zuzendaria. Ta gero ze izango eta nere zuzendari izatea gertatu zan, baino Hezkuntzan. Bueno. Mari Karmen Alzuetakin batera asko lan egin nuen eta gauzak ikusten genittuen, esate baterako, haurrak euskalduntzeak zer zekarren, familia erdaldunetako haurrak zetozkigun gure irakas-sarera eta abar. Bueno. Hor hasi zan eredu kontu hori eta. Oain ezin naiz zehatz-mehatz hortan sartu, baiña...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. San Andresak ospatzen (ORM-002/001)

Ormaiztegin San Andresak ospatzen dira. Gerra aurretik San Andresak ospatzeko zer egiten zuten azaltzen du: meza nagusia loreak bedeinkatzeko, bizikleten karrera, zaku-karrera, zinta-karrera, lapiko-jokoa... Bainuetxeko jendea gustura egoten zen begira.

2. Festetako musika eta bekatua (ORM-002/003)

San Andresetako musikari buruz hitz egiten du: itsuak soinua jotzen zuen, txistulariak egoten ziren... Hala ere, baltseoa jotzean, neskek dantzan egiten bazuten, kongregaziotik kanpora bidaltzen zituzten.

3. Mutilen eta nesken kongregazioak (ORM-002/004)

Hijas de María zen nesken kongregazioaren izena. Bertako kide bazinen, hilean komunioa egiten zen, eta kantuak egiten ziren. Mutilak luistarren kongregazioan zeuden, eta ez zituzten zigortzen dantza egiten bazuten. Mutilak tabernatan sar zitezkeen, baina emakumeak ez, bekatua baitzen. Neskak igandero joaten ziren elizara. Gauza erabat aldatu da orain.

4. Inguruko herriekiko harremana (ORM-002/006)

Inguruko erromerietara joaten ziren: Beasainera, Gabiriara, Alegiara, Liernira... Leku haietan ere dantza soltea egiten zuten. 10 urte zituela, Ezkiora Ama Birjina ikustera joaten ziren: batzuek ikusi egiten omen zuten, baina Kontxak ez du guztiz sinesten. Ama Birjina ikustera jende asko etortzen zen, baita kanpotarrak ere (autobusez nahiz trenez).

5. Ormaiztegiko bainuetxea (ORM-002/007)

Kontxak beti ezagutu izan du bainuetxea Ormaiztegin, baina orain ez dago (kiroldegia dago hor orain, ikus mapan). Bainuetxearen jabe eta bezeroei buruz hitz egiten du. Bainuetxea barrutik nolakoa zen eta zer zerbitzu ematen zituen azaltzen du. Herrian igartzen zen noiz etortzen ziren bainuetxeko bezeroak (kanpotarrak asko).

6. Senarra eta autobusak (ORM-002/008)

Senarra herrikoa zuen, gertukoa gainera. Ezkondu zirenean, senarrak zerra bat zuen; pixkanaka bere lana osatzen joan zen, eta azkenean, autobusak egiteko tailerra sortu zuen. Lan mota horrekiko joera familiarik zetorkion.

7. Madrilera bizitzera (ORM-002/010)

7 seme-alaba izan zituen: gehienak Beasainen, eta azkena Donostian. Gero Madrilera joan behar izan zuten bizitzera. Umeak eskolatik atera behar izan zituzten, eta Madrilgo beste eskola batzuetan bilatu zieten lekua. Aldaketa handia izan zen herri txiki batetik hiri handi batera joatea.

8. Frantsesa eta ingelesa (ORM-002/012)

Gerra garaian Frantziara joan zirenerako, Kontxak bazekien frantses pixka bat, umetan Beasaingo mojatan ikasi batzuen. Moja haiek ez ziren bereziki zorrotzak. Garai hartan, ingelesak ez zuen gaur egun duen garrantzirik.

9. Euskara eskolan (ORM-002/013)

Umetan gaztelaniaz egiten zuten dena eskolan; eta euskaraz eginez gero, zigortu egiten zituzten. Maistra Bilbokoa zen: asko zekien, baina oso zorrotza zen. Mutilek aparte ikasten zuten, eta maisu erdalduna zeukaten. Hala ere, ez zuten horrenbeste zigorrik jasotzen euskaraz egiteagatik.

10. Umetako jolasak (ORM-002/014)

Txikitan txingotan jolasten zuten, konban, diabolarekin, sokasaltoan, aroarekin... Jolas ugari zituzten. Neskek eta mutilek aparte jolasten zuten, eta mutilek beste era bateko jolasak izaten zituzten. Kolean jolasten zuten.

11. Etxean iturria jarri arteko bizimodua (ORM-002/019)

Gaztetan, baserrian ez zeukaten iturririk. Orduan, amak baldea buru gainean lotuta zuela ekartzen zuen ura; dutxatzeko, erreina batean ura berotu, eta pixkanaka garbitzen ziren; arropa garbitzeko, erreikara joaten ziren. Lehen arropa orain baino gutxiago garbitzen zen: astean bitan aldatzen ziren. Iturria jarri zuteneko eguna gogoratzen du: egun handia izan zen hura.

12. Ormaiztegiko garbitokia (ORM-002/020)

Ormaiztegin bazegoen garbitokia. Hiru presa zeuden lehen herrian, eta haien arteko zati batean, jendeak arropa garbitzen zuen (lehenago xaboia ematen zioten arropari).

13. Anaiaren ikasketak (ORM-002/021)

Neba maisua zen, eta Iruñean ikasi zuen horretarako. Kontxa ere bide horretatik nahi zuten eraman gurasoek. Anaiarekin batera, herriko beste batzuek ere ikasi zuten Iruñean maisu izateko.

14. Almacenes Beñaran (ORM-002/024)

Donostian "Almacenes Beñaranentzat" egin zuen lan: eskularruak eta galtzerdiak josten zituen. 9 urte egon zen lan horretan. Bertako nagusiarekin lotura zuen, Kontxaren amandreak bularra eman baitzion hari bolada batean.

15. Gerran aita ihesi eta Jose okindegian lanean (ORM-003/005)

11 urte zituela, gerra hasi zen. Jose Ormaiztegin gelditu zen amarekin, eta aitak Bilbora egin zuen ihes. Han harrapatu egin zuten eta Larrinagako kartzelan sartu zuten; gerora, etxera bidali zuten. Gerra bukatutakoan, lanik gabe gelditu zen aita eta lan solteak egiten aritu zen orduan. Gerra hasi zenean, tropak basatien moduan sartu ziren etxera; apaiza haiekin zegoenez, ez zuten hil aitona. Gerra garaian, okindegian lan egiten zuen Josek eta amak beldurra pasatzen zuen zer gertatuko zitzaion ez zekiela.

16. Gerran Ormaiztegiko zubia bota zutenekoa (ORM-003/006)

Gerra garaian, bonbak egon ziren, baina herria ez zuten suntsitu, zubia bakarrik bota zuten. Zubia erori zenean, uraren depositua puskatu zuen. Jende asko ibili zen lanean zubia berriro altxatzeko.

17. Kuartela bainuetxean egon zenekoa (ORM-003/008)

Zubia bota zuten garaian, kuartela zegoen bainuetxean. Bainuetxe hartara jende asko etortzen zen; besteak beste, Madrilgo alkatea. Bainuetxean hotela ere bazegoen. Lehen taberna ugari zeuden herrian, kanpotar asko etortzen baitzen, bereziki udan.

18. Bainuetxearen gainbehera (ORM-003/010)

Bainuetxera jende aberatsa etortzen zen. Gerra bukatu aurretik, bainuetxean kuartela jarri zuten eta gerora guardia zibilak ere hor egon ziren. Bainuetxea itxi egin zen azkenean. Langile asko bizi zen bainuetxetik.

19. Gerra ostean amak ogia etxean egiten zuen (ORM-003/011)

Gerra ostean gosea pasa zuten. Errazionamendua zegoen orduan eta ogi beltza jasotzen zuten. Hala ere, amak etxean nola edo hala lortzen zuen ogi goxoa prestatzea. Ormaiztegin errota non zegoen azaltzen du.

20. Gose garaian burua piztu (ORM-003/012)

Estraperloan jende asko ibiltzen zen; Altsasura joateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Estraperloan denetik pasatzen zuten: olio, tabakoa... Amak txerriaren urdaia urtu eta handik lortutako gantza olio gisa erabiltzen zuen. Garia entregatu egin behar izaten zen garai hartan. Arto-zopak, arrautzak, patatak, indabak... jaten zituzten orduan baserrian.

21. Okindegian zebileneko lan-baldintzak (ORM-003/015)

Lehen ogiak pezeta bat balio zuen. Ogi klase gutxi egoten zen. Goizetik iluntzera arte egoten zen lanean okindegian. Ez zioten jornal finkorik ematen, okina laguntzeagatik egiten baitzuen lan.

22. Okindegian ogia egiteko makineria (ORM-003/016)

Okindegian ogiak egiteko zer makineria zuten azaltzen du. Hasieran egurrarekin egiten zen sua, baina gerora fuelarekin.

23. Irizarren lanean hasi zenekoa (ORM-003/017)

Okindegiko lana bukatu zuenean, Irizarren hasi zen lanean. Hasieran pintxe egon zen han; gerora, garaje modernoan egin zuen lan. Irizar enpresa inportantea zen orduan.

24. Ferrak egiten lan egin zuenekoa (ORM-003/018)

Azurmendin ferrak egiten ibili zen lanean bi hilabeteen. Ferrak nola egiten zituzten azaltzen du. Kanpora ere saltzen zituzten ferrak. Beasaingo estaziora joaten ziren kamioiak kargatzera.

25. Teila-fabrikatik Irizar lantegira berriro (ORM-003/019)

Teila-fabrian egin zuen lan 23 urtean. Mantentze-lanetan aritzen zen han. Fabrian zer egiten zen aipatzen du. 52 urte zituela, fabrika itxi egin zen eta Jose kalean geratu zen. Orduan, Irizarren hasi zen lanean eta gauzak ondo atera zitzaizkion.

26. Irizarko bi pisuko autobusak (ORM-003/020)

Irizarren bi pisuko autobusak egiten ikusitakoa da Jose. Autobus mota hori arriskutsuagoa da.

27. Lana aldatzeko erabakia (ORM-003/021)

Lana aldatzeko erabakia zergatik hartu zuen azaltzen du: lan-baldintza hobeak eskaintzen zizkioten beste lantegian. Lanera bizikletaz joaten zen.

28. Somosierrara, autobusa konpontzera (ORM-003/022)

Irizarren konpondu behar izan zuen autobus batena kontatzen du: Somosierrara joan behar izan zuen, elurretan, eta konpontzea lortu zuen.

29. Umetako zenbait jolas (ORM-003/025)

Elizaren atarian aritzen ziren kanikatan jolasten. "Arre potxotxo" jolasa gogoko zuten. Untxiei igeri egiten erakusten zieten. Bizikleta bazuen.

30. Motorra erostera joan eta autoarekin itzuli (ORM-003/028)

Motorra erosteko ilusioa zuen Josek eta herriko lagun batekin joan zen Bilbora motorra erostera. Motorraren ordeztu, autoa erosi zuen. Gerora, autoa margotu egin zuen eta oso pozik geratu zen. Azkenean, saldu egin behar izan zuen.

31. Bigarren autoa Madrildik ekarritakoa (ORM-003/029)

Josek autoa ekarri zuenean, oso jende gutxi zeukan autoa Ormaiztegin. Bigarren autoa Madrildik ekarri zuen.

32. Eibarko partidua kosta ahala kosta ikustera (ORM-003/031)

Gaztetan Ormaiztegitik inguruko erromerietara joaten ziren: Hernio, Aralar, Txindoki, Aizkorri... Lagun batek motorra zeukan; eta, Eibarko partidu batera zihoazela, istripua eduki zuten Deskargan. Bergaran, farmazia batean, zauriak sendatzeko behar zutena hartu, eta partidura joan ziren azkenean.

33. San Andresetako bihurrikeriak (ORM-003/032)

Ormaiztegin, San Andresetan izaten ziren festak. Behin festetan egindakoa kontatzen du.

34. San Ferminetan trenak ia harrapatu zituenekoa (ORM-003/034)

San Ferminetan, txotxongiloak etortzen ziren Ormaiztegitara. Orduan zozketa izaten zen, eta behin koñak botila tokatu zitzaizen; hurrengo egunean, entzierrora joan ziren, eta bidean eskapada galanta egin zuten, ia trenak harrapatu baitzituen.

35. Ormaiztegiko telefono zentrala (ORM-003/036)

Ormaiztegiko telefono zentrala beren etxe azpian egon zen. Gerora, beste zenbait lekutara pasa zuten. Zentrala lokutorioa zen eta Kaxilda egoten zen han lanean. Argia eta ura beti izan dituzte etxean.

36. Zeruko Argiaren eta Argiaren ibilbidea (ORM-013/004)

Argia astekaria 1921ean sortu zen eta 1936an bukatu zen, Zeruko Argiarekin batera. 1963an berpiztu egin zuen Agustin Ezeizak. 1980an, kaputxinoek Zeruko Argia utzi egin nahi zuten eta langileen esku geratu zenean, Argia historikoaren mantxeta berreskuratu zuten, Estepan Aldamizen bitartez. Bizkarrezur bat osatzen du.

37. Argia, ehun urteko soka-dantza (ORM-013/005)

Ehun urtean zehar, pertsona asko, belaunaldi asko pasatu dira Argiatik eta Zeruko Argiatik. Soka dantzaren modura irudikatzen du, erreleboa emanez eta etenik gabe gertatu delako.

38. Euskarazko lehen egunkaria, Eguna (ORM-013/006)

Euskarazko lehenengo egunkaria, "Eguna", gerra betean sortu zen. Bilbon egiten zuten, gudariak, baina frontean berriemailerik izan gabe. Parte hartu zutenen izenak ematen ditu. Kazetaritza modernoa egiten zuten.

39. Emakume mitinlariak gerra aurrean (ORM-013/007)

"Eguna" egunkarian hainbat emakumek idatzi zuten. Emakume mitinlariak aipatzen ditu: Polixene Trabudua, Aide Agirre, Maria Teresa Zabala...

40. Aide Agirre, mitinlari ezezaguna (ORM-013/008)

Aide Agirre Santurtzikoa zen. Aita itsasgizona zen eta Santurtziko alkatea izandakoa. Fusilatu egin zuten. Abenturazko bizitza izan zuen: ama ezkongabea izan zen, Jaurlearitzarekin atzerrian ibili zen dantzari modura Eresoinkan, Andorran bizi izan zen... Erresistentziako lanetan zebilela, Madrilén atxilotu egin zuten. Aide Agirreren historia berreskuratu beharra azpimarratzen du.

41. Emakume mitinlarien izaera (ORM-013/010)

Beraien bizitzan erakutsi zuten emakume mitinlariak feministak eta garaian bertan bizitzen jakin zutela konpromiso handiarekin. Gerraren ondorioz kanpora joan behar izan zutelako, bizimodu aske xamarra izan zutela dio.

42. Euskarazko orri eta buletinak atzerrian (ORM-013/011)

Ameriketan sortutako aldizkari eta komunikazio buletinek arreta eman izan diote eta aztertu egin nahiko lituzkeela dio.

43. Anaitasuna aldizkaria (ORM-013/012)

Anaitasunak euskara batua estuago hartu zuen Zeruko Argiak baino; modernoagoa ere bazela dio. Bizkaian argitaratzen zuten. Uste du bi astetik behinekoa zela.

44. Goiz-argi, Anaitasuna eta Zeruko Argia (ORM-013/013)

Goiz-argi eskuindarragoa zen eta euskara batuaren kontrakoa. Franco hil berrian, 1976an, Goiz-argik, Anaitasunak eta Zeruko Argiak bat egin zuten kanpaina baterako, euskarazko kazetaritza aldarrikatzeko.

45. Euskaldunon Egunkariaren hasiera eta itxiera (ORM-013/014)

1990eko abenduaren 6an irten zen Euskaldunon Egunkaria. 2003an indarrez itxi zutenekoa kontatzen du. Hunkitu egiten da.

46. Euskal kazetaritza, jazarrita eta estigmatizatuta (ORM-013/015)

Euskarazko kazetaritza susmopekoa izan da beti Espainiako agintarientzat eta jazarri egin dute ahal izan duten guztian. Estigmatizatua dago euskarazko kazetaritza, gizartearen bertan ere. Euskal hiztunek erdarazko prentsa zergatik irakurtzen duten ez du ulertzen; garrantzitsua erdaraz ateratzen dena dela pentsatzen dutelako.

47. Euskarazko kazetaritza baztertua (ORM-013/016)

Estigmatizazioa alderdi profesionalek ere gertatzen da: prentsaurreko batean euskaraz galdera egitea, molestatzea zen. Ausardia behar zen. Oraindik ere, gutxiago bada ere, bazterkeria dagoela dio.

48. Euskaraz egitea probokaziotzat (ORM-013/017)

1976an, Felipe Gonzalezek Oiartzunen prentsaurrekoa eman zuenean, Mikel Atxagak, Zeruko Argiakoak, euskaraz egin zion galdera. Probokaziotzat hartu zuten. Gonzalezen orduko emazte Carmen Romero topa egitera hurbildu zitzaion Mikeli "Viva Euzkadi nazi" esanez. Estigmatizazioa beste kazetari batzuen aldetik ere nolakoa izan zen azaltzen du.

49. Zeruko Argiako langileak eta kolaboratzaileak, Deia eta Eginera (ORM-013/020)

1977an Deia eta Egin egunkariak sortu zituzten eta Zeruko Argia hustu egin zen. Mikel Atxaga eta Amatiño, esaterako, biak Deia-ra joan ziren. Donato Unanue Egineko sortzaileetako bat izan zen. Langileek zein kolaboratzaileek batera edo bestera jo zuten.

50. Zeruko Argiari, euskara hutsezko hedabideari, eusten (ORM-013/021)

Pilar Iparragirre, Lurdes Auzmendi eta hirurek Zeruko Argian jarraitu zuten, eta iruditzen zitzaaien euskara hutsezko hedabide bati eustea. Orduko mugimendu eta borroka sozialen bozeramaile bihurtu ziren.

51. Luxuzko kolaboratzaileak Zeruko Argian (ORM-013/022)

Joseba Sarrionandia Zeruko Argiako kolaboratzaile finko bihurtu zuten. Zertaz eta zein euskararekin idatziko zuen ez zuten jakiten. Beste kolaboratzaile batzuk: Koldo Izagirre eta Ramon Saizarbitoria. Kazetaritza literarioa umorez egiten zutela dio. Grafisten artean, Olariaga, Larrarte, Tororo, Jose Mari Aleman...

52. Bixente Ameztoren Zeruko Argiako azalak (ORM-013/023)

1978an Bixente Ameztok margolariak azalak egin zituen, urte osoan zehar.

53. Zeruko Argia eta preso politikoak (ORM-013/025)

Kultur mugimendu handia zegoen 70. hamarkadaren bukaeran. Alderdi sozial, kultural eta politikotik begiratuta material asko zegoen. Kartzelatik irtendako presoak elkarriketatzen zituzten Zeruko Argian. Kartzelan zeuden kolaboratzaileak ere bazituzten. Angel Amigori egin zion elkarriketan Segoviako ihesaldia kontatu zion, gero pelikulan agertu zen moduan.

54. Zeruko Argia izatetik, Argia izatera (ORM-013/028)

1980an Zeruko Argia ezkerrekoa eta aurrerakoia zen. Hortaz, harpidedun tradizionalak utzi egin zuten eta gutun gogorak eta iraingarriak ere jaso zituzten. Kaputxinoek erabaki zuten langileei uztea aldizkaria. Argia historikoaren mantxeta lortu zuten, zorrak ordaindu zituzten eta egoitza utzi egin behar izan zuten.

55. Zeruko Argiako erreleboa (ORM-013/029)

Soldata jasotzeari utzi zionean, 1981 hasieran, utzi egin zuen Zeruko Argia. Agortuta sentitzen zen. Pello Zubiria, Josu Landa, Kike Amonarriz, Barandiaran eta beste hainbat kolaboratzen hasi ziren, bera oraindik han zegoela. Pilar, Lurdes eta hirurek alde egin zutenean, Jose Mari Ostolazak eta Joxemi Zumalabek ekipoa osatu zuten kolaboratzaile haiekin. Gero Egunkaria sortu zuten.

56. Argiatik Euskaldunon Egunkariaren sorrera (ORM-013/030)

Egunkaria sortu zutenean, berriz ere Argiako jendea haruntz joan zen eta berriz Argia kinka larrian geratu zen. Oso gazteak, saiatuak, ekimentsuak, bohemoak eta ikuspegidunak zirela dio.

57. Tituludun zuzendaria behar Zeruko Argian (ORM-013/032)

1976an Zeruko Argian hasi zenean, Gorka Reizabal zen zuzendari nominala, baina Mikel Atxagak betetzen zuen funtzioa. Tituluduna izan behar zen zuzendaria. Orduan, batzuek titulua uzten zuten aldizkaria argitaratu zedin.

58. Amatiñoren ekarpena kazetaritzari (ORM-013/033)

1976an erredakzioan sartu zenean, Mikel Atxaga zen zuzendari efektiboa. Kolaboratzaile asko zeuden, baina oso garrantzitsua izan zen Amatiño. Hasieran "Zenbat gara" atala zeukan eta gero "Bulebar irekia". Euskarazko kazetaritzari modernotasuna eman zion lehen kazetaria izan zela dio. Aurretik, iritzi artikuluak ziren nagusi. Informazio arina eta modu zuzenean ematen zuen.

59. Zeruko Argiako kideak (ORM-013/034)

Elixabete hasi zenean, Mikel Atxaga zuzendaria, Amatiño kolaboratzailea, Kaetano Ezeiza kaputxinoen ordezkaria eta Xalbador Garmendia zuzentzailea aipatzen ditu pisu handiko kide moduan.

60. Zeruko Argian herrietako sarea galdu zutenekoa (ORM-013/036)

Zeruko Argian herrietako kronikak argitaratzen zituzten, baina iruditu zitzaien berregituratu egin behar zela. Ez zuten egin, eta sare hori galdu egin zuten.

61. Tokiko informazioa modu duinean: herri aldizkariak, telebistak, "Bertatik bertara" saioa (ORM-013/037)

80. hamarkadan Aldundiak zebilen lanean, eta Arrasate Press sortu zenean, poz handia hartu zuen, tokiko informazioak bidea egin zuelako, duintasunez. Hasieran Nafarroan mugimendua izan zen. "Bertatik bertara" saioan ibili zen eta tokiko informazioa lantzen zuten. Saio ona izan zela dio eta ikaragarritzko erantzuna izaten zuela. Hartzaileak informatzaile bihurtzen ziren. 1995ean hasi zen.

62. "Bertatik bertara" saioa birrinduta (ORM-013/038)

ETBkoek "Bertatik bertara" saioa birrindu egin zutela dio. Lan-taldea ekoiztetxe batera bidali zuten. Pribatizatze prozesua izan zen.

63. Telebistan sartzeko, itxaron egin behar (ORM-013/039)

1980 inguruan, ikastaro batzuk antolatu zituzten sortzear zegoen telebistarako. Aurkezleen adarra egin zuen; bikoizketarena zen bestea. Telebista sortu zenean ez zioten deitu; kazetaria izanda eta euskarazko kazetaritzan bost urtez aritu arren, ez zuten fitxatu. Zeruko Argiatik zetorrena ezin zen zuzenean telebistara joan.

64. ETBn erdarazko albistegiak hasieratik (ORM-013/040)

Telebistaren sorrera kanpotik bizi izan zuen. Hasieratik zeuden euskaldunak ez ziren kazetariak, eta albistegi batzuk erdaraz egiten ziren.

65. Euskadi Irratian oso maila ona; ETB1 ETB2ren morroi (ORM-013/042)

Manifestazio handiak egin ziren euskarazko telebista eskatzeko. Oso garbi ikusten zen telebistaren garrantzia zenbaterainokoa zen. ETB1 eta Euskadi Irratia konparatzen ditu; Euskadi Irratiak izugarrizko maila ona duela dio. ETB1ekin gertatzen dena azaltzen du: albistegiak laburragoak eta pobreagoak dira. ETB1 ETB2ren morroi da; ez bakarrik diru inbertsioagatik, ikuspegia ere bai.

66. Audientzia jasotzeko eta inkestak egiteko modu desegokia (ORM-013/043)

"Bertatik bertara" saioa ezaguna zen eta audientzietan ez zuten hain altu ematen. Inkesta soziologiko baten zalantza azaltzen du. Audientzia jasotzeko moduak beti ez duela balio esplikatzeko du.

67. EITBren hainbat gabezia (ORM-013/045)

EITB zerbitzu publikoa dela lauso geratzen dela dio. Kazetaritzako arauak hankaz gora jartzen dituztela azaltzen du; adibidez, estilo inklusiboa. Erreferentziak espainiarrak izaten dira.

68. Segura eta Loiola irratiak (ORM-013/048)

Goierrin Segura irratia entzuten zuten. Errosarioa euskaraz egiten zuten. Loiola irratiak euskaraz askoz gehiago ematen zuen. Igandeetan bertso saioak egoten ziren eta ozen-ozen jartzen zuten etxean, kanpotik ere entzun zedin.

69. Zeruko Argiari zentsura (ORM-013/051)

Zeruko Argian Mikel Atxaga eta Miren Jone zeudenean, isun asko izaten zituzten, zentsurarengatik. Jendeak dirua ematen zuen eta hobeto ateratzen omen ziren.

70. Industriari lotutako familia (ORM-014/002)

Zazpi senidetan erdikoa izan da, eta horrek baldintzatu egin izan duela dio. Industriari lotutako familia izan da. Aititak motor elektriko inguruko tresnen "Onena" lantegia sortu zuen; oso euskaltzalea eta abertzalea zen.

71. Ormaiztegiko lantegiak eta haien sorburua (ORM-014/003)

Ormaiztegiko zubi handia eraiki zutenean, italiar eta frantziar asko ibili zen hor lanean. halako obra handiak industriari begira jarri zituen ormaiztegitarrak. Hainbat lantegi izendatzen ditu.

72. "Letag", gurasoen lantegia (ORM-014/004)

Aitaren enpresatik banatu eta gurasoek beste bat sortu zuten, "Letag". Aitak ikasketak egin zituen, eta batean eta bestean lan egin zuen. "Letag" lantegian ibiltzen ziren umetan, baratzean, uretan...

73. Giro euskaltzalea eta abertzalea etxean (ORM-014/005)

Aita-amak oso euskaltzaleak eta oso abertzaleak ziren. "Erdaraz ezta txantxetan ere!" esaten zieten umeei. "Xabiertxo", "Martin Txilibitu"... zituzten etxean; Maritxu Barriolaren bidez lortzen zituen amak liburuak. Aitak Jon Etxaiderekin harremana izan zuen.

74. Euskarazko disko eta liburuak ahizparen eskutik (ORM-014/006)

Mari Karmenek material asko ekartzen zuen etxera: diskoak, liburuak... Joxean Artzeren "Isturitzetik Tolosan Barru", Raimon...

75. Eskola erdalduna, hizkuntzarengatik eta erreferentziengatik (ORM-014/007)

Eskola nazionallean ibili zen. Maistrak herrikoak eta euskaldunak ziren, baina eskola bera erdalduna. Ez zen hizkuntza kontua bakarrik, erreferentziak ere erabat arrotzak ziren.

76. "Amaya" eta "Gayarre" filmak (ORM-014/008)

Parrokiako zinemara joaten ziren eta film espainiarrak, bakeroenak, gerrakoak... ikusten zituzten. Dena kanpoko zen. "Amaya" eta "Gayarre" filmetan euskal kutsua nabaritzeak poza eragin zion.

77. "Ez ginela espainolak" (ORM-014/009)

Batxilergoa ikasten zuen garaian, anai-arrebekin izandako elkarriketa baten ondoren, argi geratu zitzaion euskaldunak ez zirela espainolak.

78. Ama eta aita "El dia" egunkariko kronistak (ORM-014/010)

Gurasoek herriko kronikak idazten zituzten "El Día" egunkarian. Patxi Etxeberria apaizak, bere amarengan eragina izan zuen, euskal kulturaren murgildu zuelako eta euskaraz alfabetatu ere bai. Aitak ere pizkundeko giroa bizi izan zuen.

79. Amaren eta aitaren kronikak euskaraz (ORM-014/014)

Gurasoak pizkunde garaikoak izan ziren. Aitak Lazkaoetik eta amak Ormaiztegitik "El Dia" egunkariko "euskal orria"n idazten zituzten kronikak gaztetan.

80. Umetatik, kazetari izateko gogoa (ORM-014/015)

Umetatik argi izan du kazetari izan nahi zuela. Jolasean, irrati saioak egiten zituen. Kazetaritza ikasketak egiten hasi zenean, irakasle batekin izandako elkarriketa kontatzen du.

81. Euskarazko kantak herri guztiarentzat (ORM-014/016)

Amak Aberri Egunean Labeguerie-ren diskoak eta euskarazkoak jartzen zituen disko-jogailuan, eta ozen jarri ere bai, kanpotik entzun zedin.

82. Ahizpak ekarritako modernitatea (ORM-014/017)

Bere ahizpa Mari Karmen Frantziara joan zenean, modernitatea ekarri zuen etxera. Argeliako gerraren eta haren eraginaren berri eman zien, jaki berriak ekarri, eta hango kontuak esaten zizkien. Muga pasatu eta modernitatea Frantzian hasten zen orduan.

83. Ahizparen erreferentzia berriak, arnasa (ORM-014/018)

Bere ahizpa Mari Karmenek erreferentziak ekarri zizkien eta musika ere bai. Hainbat aipatzen ditu. Arnasa hartzea zen; Espainia hura itxia zen.

84. Zeruko Argian idazten zuen bere ahizpa Mari Karmenek (ORM-014/020)

Bere ahizpa Mari Karmenek Zeruko Argian idazten zuen, "Miren Olarreaga" ezizenarekin, "Gazte naiz" sailean. Orduko bere kideak izendatzen ditu. Mundu bat ekarri zien etxera, euskaltzalea eta modernoa.

85. Euskal mundu modernoa (ORM-014/021)

Gurasoengandik jasotako euskal mundua atzean geratu zen. Mari Karmenek emandakoa euskal mundu modernoa zen. Arantxa Gurmendik "Bihurriak" izeneko rock taldea zeukan eta aitarekin joan ziren kontzertu bat entzutera.

86. Lurdes Iriondok kantatu zionekoa (ORM-014/022)

Ormaiztegiko festetan, Lurdes Iriondok abestu zuen. Elixabete gaixorik zegoen etxean. Kasilde Arcelusek Lurdes beraien etxera eraman zuen, amak ezagutu zezan. Kantatu egin ziola gogoan dauka.

87. Ez dok Amairukoen jarraitzaile (ORM-014/023)

Benito Lertxundik Ormaiztegin jo zuen eta diskoa sinatzeko eskatu zion. Zuzenekoetan, Laboa gustatzen zitzaion, eta Lete ikaragarri. "Baga biga higa" sentikaria oso gogoan dauka.

88. Oteizarekin egonaldia eta haren "Quousque tandem" (ORM-014/024)

Arantzazura bidean, Oteizak geldialdiak egiten zituen Ormaiztegin eta gogoan du bere ahizpa Mari Karmenekin batera harekin egon izana. "Quousque tandem" liburua irentsi egin zuen. Liburu hartatik gogoan hartu dituenak azaltzen ditu.

89. Txillidaren pegatak eta Zumetaren lanak (ORM-014/025)

Arte mundua oso garrantzitsua izan zen. Txillidaren grafiak pegaten bitartez ikasi zituzten. Zumetaren Usurbilgo frontoiko lanak liluratu egin zuen.

90. Literaturako loraldia (ORM-014/026)

Literaturan ere loraldia izan zela kontatzen du: Joxean Artze, Saizarbitoria, Amaia Lasa, Sarasola...

91. Saizarbitoria eta Leteren liburuak (ORM-014/028)

Ramon Saizarbitoriaren "Egunero hasten delako" eta Xabier Leteren "Egunetik egunera orduen gurpillean" liburuak batera irakurri zituen.

92. Arestiren lanak, musikarekin (ORM-014/029)

Gabriel Arestirekin gehiago konektatu zuen bere poesia musikatuaren bidez, Natxo de Feliperen eskutik. Aresti gogorragoa egiten zitzaion. Bilbori buruzko ikuspegia azaltzen du.

93. "Amalur" filma (ORM-014/030)

Jarrai antzerki taldea ikusi izana ez dauka gogoan. Kursaalean "Amalur" filma ikusi zuenekoa gogoan dauka. Ezagutu beharrekoaren mapa iruditu zitzaion. Benetan garai aberatsa izan zen.

94. Lehengoaren eta modernoaren aldekoen arteko talka (ORM-014/034)

Gerra aurreko Pizkundea mantendu nahi zutenen eta Europara begira euskal kultura modernizatu nahi zutenen artean talka sortu zen.

95. Euskara batuarekin sortutako nahasteak (ORM-014/035)

Euskara batuarekin bi korrontek talka egin zuten. Euskaldunen gizarteak arlo guztietan bi fronte zabaltzeko joera duela azaltzen du. Euskara batuarekin sortutako nahasteak kontatzen ditu.

96. Nafarroako Unibertsitateko giroa (ORM-014/038)

Kazetaritza ikasteko ez zuen Euskal Herriatik alde egin nahi. Nafarroako Unibertsitateko giroa kontatzen du. CEN taldeak sortu ziren, Nafarroako ikasleen batzordeak. Borroka sozial handiko garaiak izan ziren.

97. Potasa metategietako greban jipoitu eta atxilotu (ORM-014/039)

Potasa meategiko greba izan zenean, kazetaritzako ikasle asko joan ziren itxialdia egiten ari ziren lekura. Gomazko pilotak egun hartan ezagutu zituen. Jipoitu egin zuten eta atxilotu. Bost bat aldiz atxilotu zuten ikasle garaian.

98. Kartzelaratu zutenekoa (ORM-014/040)

Iruñean atxilotu zutenekoa kontatzen du. Tiroketa batean ihes egitea lortu zuen Koldo Iztuetaren gauzetan bere izena agertu zen. Koldok eta Yoyosek izkutatzeko lekua aurkitzen laguntzeko eskatu zioten. Hilabete egin zuen kartzelan.

99. Kartzelako egonaldia (ORM-014/041)

Iruñeako kartzela zaharrean egon zen; emakumeen aldean, preso politiko bakarra zen. Hango presokideen berri ematen du. Portugaleko krabelinen iraultza gertatu zen preso zegoela.

100. Etxebarrieta hil zutenekoa (ORM-014/042)

Giro politikoa oso nahasia zen. Gurasoak EAJkoak ziren, baina ETA hasi zenean, ez zuten gaizki ikusten. Etxebarrieta hil zutenean, bere aita-amak umeekin joan ziren hil zuten lekura eta odolez zikinduta zeuden harri koxkorrak batu ondoren, Etxebarrietaren amari helarazi zizkioten.

101. ETArekin izandako harremana (ORM-014/044)

Herri Gaztedin ibiltzen ziren; eskola sozialak ziren. Hortik ETA aldera bideratzen zituzten batzuk. ETArekin harremana izan zuen baina berehala atxilotu zuten sarekada handi batean, eta libratu egin zen. Ez zuen aurrera egin. Gaitasunik ere ez zeukala kontatzen du.

102. Euskara irakasle (ORM-014/045)

Militantziarako beste eremu batzuk bazeuden. Gau-eskoletan euskara irakasten aritzen zen Iruñean. Rikardo Arregik eta prestatutako alfabetatze kanpainarekin ikasi zuen gero erakutsiko zuena.

103. Rikardo Arregiren heriotza eta hileta (ORM-014/046)

Rikardo Arregiren heriotza. Ez zuen ezagutu baina bere hiletan izan zen Mari Karmen ahizparekin. Oso berezia izan zela dio; txalaparta jo zutela uste du. Galera handiaren sentsazioa zegoen.

104. Zeruko Argian eginiko lehenengo lanak (ORM-014/047)

Zeruko Argian argitaratu zituen lehenengo elkarrizketa eta erreportajeak ikasketetarako egindakoak ziren. Iruñeko inprentako probak zuzentzeko fitxatu zuten Zeruko Argiakoek. Ale guztiak goitik behera irakurtzen zituen.

105. Emakume kazetari erreferenteak (ORM-014/048)

Zeruko Argia ordurako despuntatzen ari zela dio. Ikasketak bukatu eta berehala sartu zen. Miren Jone (Azurza) zuzendari izandako emakume kazetaria zen. Erreferente modura gehiago gogoratzen ditu emakume kazetari erdarazkoak: Pilar de Cuadra eta Cecilia G. de Guilarte, esaterako.

106. Miren Jone Azurza kazetaria (ORM-014/050)

"Bidegileak" sailerako Miren Jone Azurzaren biografia idatzi zuen. Haren bizitzaren zertzeladak ematen ditu: familia oso abertzalekoa, lau anaiek atxilotetak edo erbestea ezagutu zituzten, kazetaritza ikasi zuen, Zeruko Argian bost-sei urte egin zituen.

107. Bidegileak: Gregorio Mujikari buruzko biografia (ORM-014/055)

Bidegileak bildumako hamaika biografia idatzi ditu. Mikel Atxaga zen zuzendari eta hark fitxatu zuen Elixabete. Gregorio Mujikarena egin zuen lehenengo. Hari buruzkoak aipatzen ditu.

108. Bidegileak: Gerhard Bar hizkuntzalaria (ORM-014/057)

Gerhard Bar hizkuntzalariaren biografia idatzi zuen. Aizkorriko mehatzeetako zuzendaria zen. Nazia zen eta bigarren mundu gerra bukaeran hil zen.

109. Bidegileak: Polixene Trabuduaren biografia (ORM-014/059)

Polixenek bi liburu ditu argitaratuta, erdaraz. Hari buruzkoak kontatzen ditu: maistra zen, Jagi-Jagikoa... Bere azken urteetan egin zuen biografia. Athleticeko jokalaria batekin ezkondu zen. Euskaraz ere mitinak emango zituela uste du.

110. Bidegileak: Balendiñe Albizu poetaren biografia (ORM-014/060)

Balendiñe (Albizu) poetaren biografia idatzi zuen. Zumaiarra zen, Behobide eskultorearen modelo izandakoa, gazte abertzalea, bi aldiz ezkondu zen...

111. Bidegileak: Karmele Goñi, erresistentziako emakumearen biografia (ORM-014/064)

Karmele Goñi erresistentziako emakumeetako bat izan zen Bilbon. "Hamarrekoak" izeneko antolaketa zeukaten.

112. Aitona berritzailea: Onena lantegia sortu zuen (ORM-016/003)

Gurasoak goierritarrak, aita Lazkaokoa eta ama Ormaiztegikoa. Aitaren familia baserri girokoa. Amaren aita, Joxe Mari Lasa, oso ausarta eta berritzailea zen. ONENA lantegia sortu zuen. Hainbat tresna sortzen zituzten bertan, besteak beste, alternadoreak. Horiei esker leku askotan argindarra jarri zuen. Hainbat bainuetxerekin ere bazuen harremana, bertarako tresnak egiten zituelako. Mari Karmenen ama 12 urterekin hasi zen lanean, aita erositako idazmakinarekin harentzako fakturak egiten eta 92 urtera arte jardun zuen lanean. Goierriko zenbait lantegik aitonak sortutako lantegian dute jatorria, esaterako, Beasaingo Indar-ek.

113. Ormaiztegiko eskolak eta irakasleak (ORM-016/004)

Herriko eskolara joan ziren umetan. Mutilen eskolan don Juan Muguruza zen irakaslea. Nesken eskolak bi zeuden: batean "señorita" Pepita ordiziarra zen irakasle; bestean, On Gaspar Intsausti erretoreak eta Udalak sortutako "Escuela Nacional Parroquial"ean Ramona Lasa herritarra. Ahizpa gehienak lau urtetik hamalaura bitartean ibili ziren orduan "Escuela Unitaria" esaten zitzaionean.

114. 13 urterekin beste gizarte bat ezagutu zuen Frantzian (ORM-016/005)

13 urterekin Frantziako Tolosa ondoko herri batera bidali zuten gurasoek, frantsesa ikastera. Izugarritzko aldaketa izan zen berarentzat beste gizarte bat ezagutu zuelako han (Aljeriako gerra, gizartearen sekularizazioa...) eta urtebetean izugarritzko heldutasuna lortu zuela dio. Batez ere emakumeentzat dena bekatu zen garai haietan, Frantzian gauzak ezberdinak zirela ikusi zuen.

115. Batxilergoa nola egin zuen (ORM-016/006)

Frantziatik itzuli zenean, aitari Batxilergoa egin nahi zuela esan zion. Ramona Lasa irakaslearekin prestatu eta urtean behin Donostiara joaten ziren Peñaflorida institutura, azterketa egitera. Irakasgaien artean matematika, kimika, latina eta bestelakoez gain, "Formación del espíritu nacional" ere bazegoen. Neskek, gainera, "Labores" (jostea) ere egin behar izaten zuten eta egindako lanei nota jartzen zieten.

116. Gizarte hezitzaile izateko asmoa (ORM-016/007)

Frantzian mojek zuzendutako eskola batean egon zen. Bertan egoera txarrean zeuden familietako barneko ikasleak ere bazeuden. Orduan ezagutu zuen gizarte laguntzaileen lana eta berak ere hori ikasi nahi izan zuen. Ormaiztegiara itzuli eta Batxilergoa egin ostean, jakin zuen Donostian orduantxe jarri zituztela Gizarte hezitzaile izateko ikasketak. Bertara joan nahiko lukeela esanez idatzi zien bertako arduradunei (Mari Karmen Altzueta eta Mari Irazusta), baina 18 urte beteta izan behar zituela erantzun zioten. Orduan Magisteritza ikastea erabaki zuen, gero gizarte hezitzaile egingo zela pentsatuta.

117. Arami elkarte eta andereñoen erresidentziaren sortzaileak (ORM-016/008)

Gurasoen familiak abertzaleak eta euskaltzaleak ziren, batez ere amaren aldekoa. Gerraosteko isiltasunean beraien etxean jakiten zituzten euskararekin edo abertzaletasunarekin lotutako kontuak. Maritxu Barriolarekin, Delia Laurobarekin, Esnaolatarrekin... harremana zuten. Magisteritza ikastekotan zegoela, andereñoen erresidentziaren berri eman zien Lazkaon apaiz zegoen Jaxinto Fernandez Setienek. 1964an sortu zen erresidentzia eta haren kudeaketa Agirretxe frantziskotarrek sortutako Arami emakume elkartearen esku geratu zen. Pakita Arregi zen burua. Bultzatzaile eta laguntzaileak nortzuk izan ziren: Karlos Santamaria, Koldo Mitxelena, Joxe Murua, Inazio Garmendia (bere aita), Juanito Goia eta Iñaki Gurutziaga, Groseko Zilbeti botikaria... Emakumeen artean, Aramiz gain, Maritxu Barriola.

118. Maritxu Barriolaren garrantzia (ORM-016/009)

Maritxu Barriola nor zen azaltzen du. Abelino Barriola antzerkigilearen alaba eta Iñaki Barriola medikuaren arreba. EAJko kidea, oso konprometitua. Bizi osoan lanean. Anaiak eta biek zapata-denda zuten Garibai kalean. Bertan gordeta edukitzen zituen Iparraldean (batez ere Azkainen) argitaratzen ziren lanak (Orixerenak, adibidez). Gero merke saltzen ziren, jendeak eros zitzen. Mari Karmenen ama zen Goierriko banatzailea. Maritxu Barriolari esker Iparraldetik ekarritako hainbat lan aipatzen ditu: Orixeren meza-liburua, Anizeto Zugastirena, `Xabierto´ren berrargitalpena...

119. Magisteritza eta andereñoen erresidentzia (ORM-016/010)

Andereñoen erresidentzia Manterola kaleko etxebizitza batean egon zen hasieran eta gero Zabaleta kalera pasa ziren, Zilbeti botikariak utzitako pisura. 1964an sortu zen eta ez zuen luze iraun, baina kualitatiboki oso garrantzitsua izan zen. Ategorrietara joaten ziren Magisteritza ikastera. Ez zuten jakiten ikaskideak euskaldunak ziren ala ez. Eskolak bukatu eta gero Milagros Bidegainek euskara eskolak ematen zituen, Aldundiak bideratuta. Berak euskara landuta zuen jada eta ez zen eskola horietara joaten.

120. Formazio osagarria jasotzen zuten andereñoen erresidentzian (ORM-016/011)

Magisteritza ikasten ari zirenek formazio osagarria jasotzen zuten andereñoen erresidentzian. Esaterako, euskara gehiago landu zuten; irakaslea Mañoli Aleman leitzarra. Euskara lantzeko ezer gutxi zegoen. Beraien etxean Apalategi kaputxinoaren metodoa zegoen, aitonak gerra aurretik erosita, eta hura eraman zuen. Juan Mari Lekuona, Ibon Sarasola eta beste hainbat irakasle ere izan zituzten.

121. Udalekuen hasiera: Barriako udalekua (ORM-016/012)

Andereñoen erresidentzian egin zuten lehenengo ekintza Barriako Udalekuak sortzea izan zen, 1965eko uztailan. Lazkaoko Jose Sarasolaren autobusean joan ziren. Udaleku klandestinoak ziren. Nekane Auzmendi idiazabaldarrak han senide bat zuelako aukeratu zuten Barria. Komun bakarra zegoen eta dutxarik ez, umeak nola garbitzen zituzten. Beraiez gain, jende gehiago egon zen begirale lanetan: Arantxa Idiazabal, Antton Mendizabal... Eraikinaren kudeaketa edo hobekuntzetan Inazio Garmendia (bere aita), Juanito Goia, Iñaki Gurutziaga eta Andoni Egia ibili ziren. Aldi bakoitzean 30 ume eta 15 eguneko txandak. Ekintzak eta ibilaldiak prestatu beharra.

122. Maritxu Barriolak Barriako begiraleentzat antolatutako txangoa (ORM-016/013)

Barriako udalekuak sortzeagatik, esker onez, Nafarroan barrena ibilaldi bat antolatu zien hango begiraleei Maritxu Barriolak. Erronkarira joan ziren; bertan Gaiarreren hilobia ikusi zuten, Luis Cambra euskaltzalea agurtu zuten...

123. Zeruko Argiako "Emakumeen jasokundea" atala eta lehenengo artikulua (ORM-016/014)

Andereñoen erresidentzian jendea gehituz joan zen. Emakumeen berdintasunak kezkatuta, hainbat konturen inguruan euskaraz idaztea erabaki zuen. Gaztelaniaz "promoción de la mujer" esaten zitzaiona "Emakumearen jasokundea" itzuli zuen, Plazido Mujikaren hiztegian begiratuta. Ez zen ausartzen bere izenarekin sinatzen eta Miren Orreaga jartzea pentsatu zuen, baina Agustin Ezeiza Zeruko Argiako orduko zuzendariak oker zegoela pentsatuta Olarreaga jarri zuen. Hala jarraitu zuen, Rikardo Arregik eskatuta bere izenez idazten hasi zen arte. Rikardoren arrebak Frantziatik ekarritako neskentzako aldizkari bat erabiltzen zuen informazio iturri gisa.

124. Zeruko Argiako "Gazte naiz" atala, alfabetatzearen hasiera... (ORM-016/015)

Zeruko Argiako "Gazte naiz" atalaren inguruan ibili zirenak: Rikardo Arregi, Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Mikel Lasa, Jose Manuel Toledo, Xabier Lete... Antzerki kontuan Maria Dolores Agirreren "Academia vasca de declamación" eta Iñaki Beobidek zuzendutako Jarrai; antzezleen artean, besteak beste, Arantxa Gurmendi. Dena egin zezaketela iruditzen zitzaien, ausartak ziren. Rikardo Arregik euskarazko alfabetatzea jarri zuen martxan. Irakasleak prestatzeko hasieran, Maria Dolores Agirreren lokala erabili zuten. Gero herriz herri. Hitzaldiak ere eman zituzten. Bera zen emakumezko bakarra. Mikel Forkada ibiltzen zen txofer moduan.

125. Rikardo Arregi (ORM-016/016)

Rikardo Arregiren inguruko kontuak. Aita, Pedro, euskaltzalea, EAJko kidea. Rikardok ekonomia ikasketak bere kasa egiten zituen, euskara bultzatzeko ekimenetan zebilen bitartean. Euskaltzain urgazle egin zuten. Alfabetatzea legeztatzeke Euskaltzaindiaren babesa lortu zuen. Garrantzitsua izan zen Juan San Martin, Jose Luis Lizundia eta beste hainbaten babesa. Rikardok askotan esaten zuen esaldia: "euskararen etorkizuna korbatadunen esku dago". Garai hartan baserriak salbatuko zuela euskara uste zen, baina Rikardok hiritartu egin behar zela ikusten zuen. "Bisionarioa" zen.

126. Lazkaoko benekditarren euskararekiko konpromisoa (ORM-016/017)

Espainian salbuespen-egoera ezarri zutenean, lagun asko kanpora bidali zituzten zigortuta, Juan Antonio Letamendia, adibidez. Lazkaoko benekditarren euskararekiko konpromisoa garrantzitsua izan zen. Elbira Zipitriaren jakintza jaso eta zabaldu zuten batetik eta bestetik ateak zabaldu, hitzaldi edo bileretarako. Lazkaoko barnetegiaren hazia izan zen. HABEren sorrera.

127. Pakita Arregi (ORM-016/018)

Pakita Arregi, jaiotzez aresoarra. Oso gazterik joan zen Donostiara, guraso eta anai-arrebekin. Donostian ikasi zuten. Gizarte-laguntzaile ikasketak bukatzeaz bat, aita Agirretzek andereñoen erresidentziako zuzendari jarri zuen. Gero ikasten jarraitu zuen eta EHUko katedraduna izatera iritsi zen, hezkuntza alorrean. Bere lanari esker eta beste hainbaten babesarekin andereñoen erresidentzia aurrera atera zuen. Neska asko prestatu ziren erakunde horri esker. Ikasleak gehitzean, Matia kalera aldatu ziren.

128. Elbira Zipitria (ORM-016/019)

Harreman gutxi izan zuen Elbira Zipitriarekin. Haren bizitza Bidegileak sailean dago jasota. Bilduma hori berak abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako idazkari izan zen garaian. Zipitria gerra aurretik hasia zen irakaskuntzan. Gerra sasoian Iparraldean egon zen, Sara inguruan. Bertan, besteak beste, Ramon Labaien irakasle izan zen, haiek ere hara ihes eginda zeuden eta. Gerraostean Donostiara itzuli eta bere etxeko gela batean ematen zituen eskolak Elbirak. Mari Karmen Mitxelena irakasle izandakoak gertutik ezagutu zuen, haren ikaslea izan baitzen.

129. Ama, irakurzalea; aitaren ikuspegi aurrerakoia (ORM-016/022)

Amaren aldeko familia oso euskaltzalea eta abertzalea zen. Ama Karmen Lasa Eguren. Oso irakurzalea zen; "Cuadernos para el diálogo"ko harpideduna. 50 urterekin frantsesa ikasten hasi zen eta 52 urterekin gidabaimena atera zuen. Ama aurrerakoia zen, baina aita izan zen bide-urratzaile izaten lagundu ziena eta ikuspegi irekiagoa zuena.

130. Aberri Egunak isilpean urte luzez (ORM-016/023)

Bere ahizpetako bat 1956ko Aberri egunean jaio zen. Beste garai batzuk balira, Aberri jarriko ziotela izena esan zuen amak. Isilik pasatzen ziren garai batean egun horiek. Pixkanaka hasi ziren azaltzen: Bergarako Aberri eguna, Iruñeko, San Migelgoa... Amak disko-jogailuan euskal musika jarri eta leihoak irekitzen zituen.

131. Iparraldera bidaiak; Lauaxeta saria Rikardo Arregiri (ORM-016/024)

Donostian ikasten hasi zenean, euskarazko liburu eta diskoak eramaten zituen etxera. Frantziako kontuak entzuten ere gustura egoten zen ahizpa. Iparraldera joaten zirenean Labeguerieren diskoak erosi eta ezkutuan ekartzen zituzten. Branka aldizkaria ere bai. Rikardo Arregiri 1966an Lauaxeta saria eman zioten Biarritzen eta hainbat lagun joan ziren. Gogoan du "Le petit prince" liburua erosi zuela.

132. Euskara irakasle oso gaztetatik (ORM-016/026)

Patxi Altunak berarekin batera euskara klaseak ematera eraman zuen Deustuko unibertsitatearen Donostiako campusera, Altunaren `Euskera, hire laguna´ liburua kopiagailuan argitaratzen zen garaietan. Bere ikasle izandako batzuk: Enkarni Genua, Marisol Bastida (Mikel Laboaren emaztea), Juan Jose Ibarretxe... Santo Tomas lizeoko irakasle ere izan zen Jerardo Elortza eta Rikardo Arregirekin batera 1965-1966 ikasturtean. Aurretik ere Ormaiztegin euskara eskolak ematen zizkien umeei udan. Baina material gutxi zegoen: `Martin txilibitu´ eta `Xabiartxo´ eta gero Orixe, eliz-liburuak... Gerora liburugintzan materiala sortzen ibili ziren: gramatika arloan Patxi Goenaga, Lupe Artola; ipuin kontuan Andu Lertxundi; musika kontuetan Gotzon Aulestia...

133. Tradizioaren eta modernotasunaren arteko talka (ORM-016/029)

Tradizioaren eta modernotasunaren arteko talka egon zen alor askotan: euskara batuaren baitan, literaturgintzan, antzerkian... Une gogorak pasa arren, aurrera egin zen. Gauza asko ideologizatu eta politizatu egin ziren, haren erabilera, adibidez. Literaturgintzan gaur egun ikuspegi zabala eta emakumezkoen ibilbide sendoa eta eman handikoa ditugula dio.

134. Hezkuntza elebidunaren inguruko tesia (ORM-016/031)

Eskolara guraso erdaldunak zituzten haurrak joaten hasi zitzaizkienean hizkuntza-ereduak jartzea planteatu zuten. Elebitasunaren inguruan tesia egitea pentsatu zuen, baina zuzendaririk aurkitu ezinda ibili zen. Deustuko irakaslea zen Juan Plazaola jesuitaren bitartez Frantzian erbesteratuta zegoen Julian Ajuriagerrarengana iritsi zen. Hark Estrasburgoko unibertsitatean katedraduna zen alsaziar batengana bidali zuen eta emakume hark lagundu zion doktoretzarekin. Tesiko aztergaia: "Hezkuntza elebiduna Hego Euskal Herriko ikastoletan". Ordurako ezkondata zegoen eta bi ume zituen eta irakasle lanean zebilen eta erronka handia izan zen.

135. Ez dok Amairu; Elbira Zipitria gitarraren aurka (ORM-016/033)

Ez dok Amairu. Beraiekin andereñoen erresidentzian bizi zen bat Elbira Zipitriarengana joaten zen praktikak egitera. Pakita Arregik gitarra irakaslea jarri ziela jakin zuenean, bota egin zuen, gitarra espainiarra zelako Elbirarentzat. Tradizioaren eta modernotasunaren arteko beste talka bat izan zen. Mixel Labeguerie, Ez dok Amairuren aurrekaria. Benito Lertxundi. Joxean Artze, garaiaren aurretik zihoala zirudien.

136. Zeruko Argiako lehenengo emakumeak (ORM-016/034)

Zeruko Argia aldizkarian lehenengo emakume artikulugilea izan zen. Bere bidez hasi ziren gero Amaia Lasa eta Begoña Arregi. Geroxeago Odile Kruzeta eibartarra hasi zen, Joxe Mari Kruzetaren alaba. Miren Jone Azurza, bide-urratzailea.

137. Gerraosteko antzerkigintza (ORM-016/036)

Ez zuen antzerkirik sekula egin, baina laguntzen ibiltzen zen. Bai Maria Dolores Agirreren taldearen eta bai Iñaki Beobideren taldearen ikusle zintzoa zen. Santo Tomasetan eta San Sebastianetan Antzoki Zaharrean. Herrietara ere joaten ziren eta bertako gazteentzat garrantzitsua izaten zen. Don Manuel Lekuonak prestatutako antzerkiak, klasikoagoak. Xalbador Garmendiak Jarrai antzerki taldearentzat itzulpenak egin zituen, jada modernoagoak.

138. Elizaren eta zenbait elizgizonen jarrera gerraostean (ORM-016/037)

Elizaren indarra eta eragina. Bazeuden ikuspegi irekia eta konprometitua zuten elizgizonak, adibidez, Serafin Esnaola. Vatikanoko II. Kontzilioaren eragina. Baziren elizaren gune itxiak ere. Ikastolen mugimendua hasi zenean, elizak eta herrietako erretoreek eskola txikiei emandako babesak.

139. Hezitzailea lanbidez, gizarte-laguntzailea bokazioz (ORM-016/040)

Ez da izan etxeko sukaldean gordetzekoa, nahiz eta sukaldaritza gogoko duen. Auzolana asko baloratzen du eta euskararentzat beharrezkoa dela uste du. Ez da jakiten bideak nora eramango zaituen. Berak herri txiki bateko maistra izatea zuen amets. 18 urterekin hasi zen lanean, hasieran Gizarte Segurantzarik gabe. Erretiroa hartu zuen arren, martxan jarraitzen du. Matia eta Nazaret fundazioetan dabil lanean.

140. Erretiroa hartu osteko Mari Karmen (ORM-016/041)

Erretiroa hartu duenetik etxekoei garai batean eskaini ez zien denbora eskaintzen saiatzen da. Maddi alabak umetan esan ziona. Aurrekoak zaintzeko aukera ere izan zuen. Familiak gain, beste zaletasun batzuk ere baditu: musika, lorezaintza... Eta bere burua zaintzen ere ikasi du, ariketa fisikoa eginda. Garai baten gaizki ikusita zegoen emakumeek kirola egitea. Emakumeek gaur egun "Superwoman" papera ote duten. Behin ahizpak utzi zion liburua. Ondo antolatzea da kontua.

141. Une gogorak politikan (ORM-016/043)

Burgosko prozesuaren garaia nola gogoratzen duen. Egund "belunak". Eusko Jaurlaritzan Kultura Sailburu eta bozeramaile izan zenekoa garai gogorra izan zen: heriotzak, bahiketak... Berari ere zainduta bizitzea tokatu zitzaion. Garai haren alderdirik onena pertsonen halako egoerei nola aurre egiten dieten ikustea, gizalegea...

142. Euskaltzaindiaren erakundetzea (ORM-016/044)

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako idazkari izan zen sasoian, Euskaltzaindiaren erakundetzea lortu zuten. Aita Villasantek orduko euskaltzainburuak lagundu zion asko. Mikel Zalbidek, Jose Luis Lizundiak eta geroago Haritxelarrekin ere zeresana izan zuten. Haritxelarrekin sinatu zuten

akordioa Nafarroako Gobernuak, hiru aldundiek eta Jaurlaritzak. 1918ko Oñtilde;atiko bilkura Euskaltzaindiaren sorreran garrantzitsua izan zenez , bertan egitea proposatu zuen.

143. Elhuyarren sorrera (ORM-016/045)

Elhuyarren sorrera. Ingeniaritza eskolako hainbat ikasle eta beste zenbait lagun "Círculo San Ignacio" jesuiten lokalean biltzen ziren larunbat arratsaldeetan. Don Karlos Santamaria matematikariak akademia zuen bertan eta ahalbidetu zien sarrera. Euskara zientzia mundura eramatea zen helburua. Bertan biltzen zirenak: Luis Bandres, Andoni Sagarna, Ibon Sarasola, Etxenike...

144. 1997an sinatu zen AEK eta HABEren arteko hitzarmena (ORM-016/047)

Eusko Jaurlaritzan egon zen sasoian AEK eta HABEren arteko gatazkari irtenbidea ematea tokatu zitzaion. Taldean zituen Josune Arzitondo, Xabier Aizpurua eta Jokin Azkue eta AEK-ko Erramun Osa aipatzen ditu. 1997an sinatu zuten hitzarmena. Gatazkaren nondik-norakoak: AEK eta HABE, elkartuko ez ziren bi bide paralelo zeuden.

145. ETAren bahiketak (ORM-016/049)

Garai gogorrak bizi izan ziren politikan. ETAren bahiketak. Jose Antonio Ortega Lararena izan zen luzeena; Burgosera joatea tokatu zitzaion. Bahiketak eta heriotzak oso gogorrak izan ziren eta denak ditu gogoan.

146. Miguel Angel Blancoren bahiketa eta heriotza (ORM-016/050)

Miguel Angel Blancoren bahiketaren inguruko kontuak. Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea zen orduan. Nola bizi izan zuen dena: bahiketaren albistea, manifestazioa, ospitaleko egonaldia, hileta... Hainbat politikarik familiarekiko izan zuen jarrera eta protagonismo nahia kritikatzeko ditu.

147. ETAk eraildako Buesa eta Lluch-ekin zuen harremana (ORM-016/052)

Mehatxatuta zegoen Tolosaldeko lagun batek laguntza eskatu zion. Ibarretxe lehendakariari horren berri ematear zegoela, danbateko batek eten zuen beraien elkarriketa. Fernando Buesa eta haren zaintzailea hil zituzten orduantxe. Buesarekin harremana zuen Jaurlaritzatik. Ernest Lluch-ekin ere beti harreman ona izan zuen. Berarekin izandako azken bi elkarriketak. Lluch-en bitartez Maximo San Juan umoregilea ezagutu zueneko pasadizoa.

148. Yoyes eta Juan Mari Jauregi gertukoak zituen (ORM-016/053)

Beraien familian asko eragin zuten heriotzak izan ziren Yoyes-ena eta Juan Mari Jauregirena, biak oso gertukoak zituztelako. Umetatik ezagunak, bere anai-arrebekin ibili ziren Ordiziako Urdaneta akademian, batxilergoa egiten. Juan Marirekin azkenengoz izan zuen harremana. Boisen zegoela jakin zuen haren heriotzaren berri. Yoyes-ena Gasteizen zegoela jakin zuen. Haren senarra lankide izan zuen Santo Tomas Lizeoan.

149. Yoyesen inguruko zenbait kontu (ORM-016/055)

Gogoan du neska koskorretan Yoyesek eta bere ahizpa Julitxok praka bakeroak erosi, barrenak moztu eta listu (flekoak atera) egin zituztela; amaren haserrea. Yoyesen aitona, Katarain, ormaiztegiarra zen. Aitak, Gonzalez, produktuak saltzen zituen Ormaiztegiko dendetara.

150. 70-80ko hamarkadan irakaskuntzan murgilduta (ORM-016/058)

Franco hil osteko garaia. Gogoan du diru-bilketak egin zirela, besteak beste, Egin eta Deia egunkarientzat eta Erein argitaletxearentzat. Auzolana, dirutan. Santo Tomas Lizeoko irakaslea zen orduan eta irakaskuntzan zebilen buru-belarri. Titulurik ez zuten andereñoek batxilergoa egin zezaten eskolak ematen zituen iluntzeetan eta baita D eta B euskara tituluak ateratzeko ere. Horrez gain, Kataluniatik eredua hartuta, udako eskolak ematen zituzten Loiolan. Euskararekin lotutako batzuk Lazkaon ematen ziren, benediktarretan.

151. Emakume aitzindaria, ondorengoei ateak zabaldu dizkiena (ORM-016/059)

EAJko lehenengo sailburua izan zen Jaurilaritzan; aurretik baziren beste alderdi batzuetako hiru emakume. Hizkuntza Politikako lehenengo idazkari emakumezkoa izan zen eta baita lehenengo bozeramailea ere. Aitak beti esaten zien emakume izanagatik ez izateko nahi zuten hura egiteko beldurrik. Bide-urratzaile izan zen eta poza ematen dio ondorengoei bide hori jarraitu dutela ikusteak. Gauzak oso desberdinak dira gaur egun.

152. Emakume Abertzale Batza eta gerraren etena (ORM-016/061)

Emakume askoren lana ezkutuan geratu izan da. Emakume Abertzaleen Batzako emakumeak: Julene Azpeitia, Haydée Agirre, Azkuetarrak... Errepublika garaian emakumea indarra hartzen hasita zegoen, baina gerrak eten izugarria ekarri zuen. Bere umetako eskola-koadernoetan ikus daiteke politikoki eta emakume bezala zer ideia sartu nahi izan zizkieten.

153. Pilar Primo de Rivera agurtu behar izan zuen Deban (ORM-016/062)

Pasaportea ateratzeko edo Magisteritza egiteko, hilabeteko ikastaroa egin behar izaten zuten emakumeek, Deban. Besteak beste "Obras completas de Jose Antonio Primo de Rivera" liburu potoloa ikasi behar izaten zuten. Hango zuzendari zen Petrirenak aginduta, Pilar Primo de Rivera agurtzera joan beharra izan zuen. 17 urte zituen. Orduko kontuak eta murgilduta zebilen bi munduen arteko kontrastea.

154. Magisteritzan musikako irakaslearekin gertatua; Maritxu Zabalbeaskoa (ORM-016/063)

Magisteritzan musikako bi irakasle zituzten: Maria Dolores Jauregi, titularra, erregimenekoa, eta Maritxu Zabalbeaskoa laguntzailea. Hirugarren urtean, abesbatza antolatu behar zuela eta Itziar Korta eta bera aukeratu zituen bakarlari gisa. Ikasturte amaieran biei ez gaitutua jarri zien. Orduan, Maritxu Zabalbeaskoak bere etxera joan eta berak prestatuko zituela esan zien. Etxean aipatu zuenean konturatu ziren Plazido Domingoren amarekin (Pepita Enbilekin) Eusko Abesbatzan ibilitako Zabalbeaskoatarren familiakoa zela. Familia abertzalekoa eta euskalduna zen. Hari esker gaitutu zuten ikasgaia.

155. Euskararen inguruko pozak eta kezkak (ORM-016/065)

Euskararen egoera asko aldatu da garai batetik. Gaur egun ere badaude kezkatzeko kontuak. Euzkitzeren artikulu batean irakurri zuen kazetarien artean gertatzen ari dena: lanerako hizkuntza gaztelania eta albisteetarako euskara. Kontu hori beste arlo batzuetan ere gertatzen da eta kezka sortzen dio. Etorkinen familietako umeekin harremana du eta, ahal duen neurrian, laguntzen saiatzen da. Euskaraz komunikatzen da beraiekin. 1964an bera joan zenean baino euskara gehiago entzuten da Donostiako kaleetan.

156. Euskara zer den berarentzat (ORM-016/068)

Euskara zer den berarentzat. Etxekoekin beti euskaraz. Bere tristurak, bere bizipozak, bere sentimenduak, bere egunerokotasuna... hori dena da euskara. Hizkuntza eta lurraldea. Euskara batzeko izan dadila, ez banatzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com